

(1549)



1.1 1549. URTEA

1.1.1. Domingo Arronaren testamentua eta Martin Esnalekin zuen auzia

- 1549-VI-22an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez, ohean gaixo egonik, Domingo Arronak bere testamentu itxia egin zuen. Zestoako elizan bere etxearen hilobian ehortziko zuten, eta bertan egingo zizkioten ohiko hiletak eta elizkizunak.

Testamentu-betearazle Martin Perez Artzubiagakoa eta Pedro Arretxe apaiz lizentziatua izendatu zituen. Domingo hil eta urtebeteko epean beteko zuten testamentuan agindutako guztia.

Bere oinordeko unibertsal Ana Baltzola emaztearekin izandako Frantzisko Arrona semea izendatu zuen. Semea ezean, Ana emazteak gero Domingorengandik izan zezakeen semea edo alaba izango zen oinordeko. Hiru urteko epean Frantzisko Arrona semea hiltzen bazen, eta Ana emazteak bere beste seme edo alabarik ez bazuen, Katalina Bedua-Martzana iloba izango zen oinordeko, baina Zestoan bizi beharko zuen Domingo Arronaren etxe nagusian (Joan Mateo Arretxe izena zuen etxean). Bestela Katalinaren Sebastian Arrona

seme naturala izango zen oinordeko, eta hori ezean Domingo Altzolarats (San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatuaren eta Maria Perez Arronakoaren semea).

1.1.1.1. Domingo Arronak agindutako ordainketak eta zorrak

Domingo Arronak bere testamentuan hainbat ordainketa egitea agindu zuen. Hona hemen batzuk: Ramirez Zaragozari (Zaragozakoari) 50 erreal; Martin Ondalde zaharrari 10 erreal; Sebastian Artazubiagaren oinordekoei 10 erreal; Joan Aranoren oinordekoei 30 erreal; Errezilgo Martin Otaegiri 6 dukat; Oikiako Katalina lonjazaleari dukat bat; Artigako serorari dukat bat; Aizarnako Joan Otxoa Artazubiagakoa erretoreari 2 dukat eta 8 erreal; eta Maria Perez Idiakaizkoa amaginarrebari 200 dukat ken eman zion mandarraren balioa.

Domingo Arronaren Frantzisko Arrona semea hiltzen baldin bazen, Ana Baltzola emazteari 150 dukat emango zizkioten.

Domingo Arronak agindutako beste ordainketa batzuk hauek ziren: Esteban Edarritzagari 5 dukat ken

1.1. irudia.
Arroaerrekako Azkaeta.



3 erreal, gehi 8 dukat eta 6 kintal burdina; Arroako Joan Oliden zaharraren oinordekoei 12 erreal; Oikiako Pedro Etxaberen oinordekoei 12 erreal; Pedro Eskoriatza-Agirre harakinari 1,5 erreal; Martin Arano "Motza" ezizenekoari 10 dukat; Elkanobitarte baserriko Maria Akertzari 29 dukat (Zarauzko jaunak jasota); Martin Indori 20 kintal burdina (bere zorretik deskontatzeko) eta Joango Narruondori 6 erreal.

Agindutako beste ordainketa batzuk hauek izan ziren: Martin Azkaetari eta Martin Ibarrolari 20 erreal; Zumaiaiko? Joan Molbiedrori eta Katalina Zigarani, Arroako Etxeandiaz Esteban Eztiolaren agiriak zioena; Arroako bikarioak esanda Etxeandikoentzat eman beharreko mezak kostatzen zirena; Grazia Gorosarriri 16 dukat; eta bere eta Graziaren Martin semeari 16 dukat ezkontzarako; Maria Amezketarekin Domingok izandako bi alabentzat 8na dukat; Pedro Arretxe apaizari 9 aldiz 30 meza emateak eta urteroko mezak balio zutena; Lope Zelaiaren emazteari, Agirre baserrian egindako hormaren balioa; kristau gatibuak askatzeko erreal erdia; Aizarnako eta Zestoako elizei 2na dukat; Itziarko elizari eta Zestoako San Sebastiani 2na erreal; eta Beaingo San Lorenteri erreal bat.

Hona hemen Domingo Arronak emandako beste zenbait agindu: Pedro Arretxe apaizak zekien pertsonari zegokiona; Domingo Arangureni 10 dukat; Joan Ameznabari (Etorragoikoari) 8 erreal; Joan Ondalderi 60 erreal; bere bi ilobei dukat bana; Edarritzagako bi urtzaileei Esteban Edarritzagak zioena; Domingo Segurari 37 erreal; Txiribogako erreminten balioa Bartolome Txiribogari, zorretik deskontatzeko; Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari 100 erreal; Joan Intzinari 1,5 dukat; Blas Artazubiagari 8 dukat; eta Katalina Akertzari 10 koroa eta dabloia.

Agindua emandako beste batzuk hauek ziren: Fernando Arantzari 275 marai; Joan Martinez Lasakoari kontuak eginda ateratzen zena; Martin Etxezarretari 3 dukat; eta Grazian Etorraetxeari koroa eta 29 erreal (ikus [XVI. m. (49-VI) 2] agiria).

- 1549-XII-19an, Azpeitian, Martin Perez Eizagirekoa eskribauaren bidez, Arabako Bernedoko Joan

Molbiedro jaunak ahalordea eman zien Joan Olanori eta bere suhi Migel Arregi azpeitiarrei.

Zestoako Domingo Arrona zenak, Joan Molbiedrori 18 dukateko zorra utzi zion, eta ahalordea zutenak zor hura eta auzi-gastuak arabarrarentzat kobratzen saiatuko ziren.

Lekuko azpeitiar hauek izan ziren: Andres Olaberrieta, Joan Sorainz eta Sebastian Ugarte (ikus [XVI. m. (49-XII) 2] agiria).

1.1.1.2. Domingo Arronak jasotzeko zituen zorrak eta zordunak

Hauek ziren zordunak eta ordaindu behar zutena: Martin Indok 167 kintal burdina gehi 13 dukat eta 2 erreal, Esteban Eztiolaren agiriz Joan Martinez Olotzagakoa kontulariari ordaindutakoagatik; Joan Fernandez Arreitzaakoa hauspaginak 2 dukat eta 5 erreal, Domingo Ameznabarren zorreratik; Marina Artigak 8 ohol; Domingo Garratzak 8 ohol; Arroako Agirre baserriko (Joan Oalora maizter izanik) eta Aiako Beogarate baserriko ganaduetan zuen parte; Matxi? Egañak 2 dukat eta Domingo Zatarainek 2 erreal; Maria Bedua arrebak 20 bat dukat; eta Apatetikoko etxeokoen eta Domingo Apatetik 8 dabloi gehi dukata eta 4 erreal.

Hona hemen beste zenbait zordun eta zor: Fernando Zubeltzuk 6 erreal; Maria Perez Altzolaraskoak 6 dukat eta 3 erreal; Domingo Aizpuruk eta Domingo Arangurenak 10,5 kintal burdina; Martin Saustin Ezenarrok 37,5 erreal; Martin Ezenarro zaharrak 12 erreal; Martin Ondaldek eta Martin Indok katilu urreztatua; Bartolome Etxabek eta Martin Etxezarretak 22 kintal burdina; San Joan Amilibiak 2 dukat; Martin Esnalek eta Joan Atristainek 8 kintal burdina; Joan Perez Etxezarretakoa eskribauak erreala; eta Getariako Askizuko Joan Orroagak 6 erreal (bi katilu utzi zituen, bat Lisboakoa).

Domingo Arronak ondoren, etxean zeuzkan tresnak eta ondasun batzuk zerrendatu zituen: zilarrezko bi txarro; zilarrezko gatzontzia; zilarrezko 2 koilara; eztaizuzko eta lurrezko ontziak; Flandesko aulki-zamaua

(Zestoako elizarentzat utzia); etxeko beste zama bat, altzifrezko kutxa handia, hiru kutxa eta 2 upel huts; eta 5 eraztun (bat Migel Artazubiagaren emazteari ematekoa) (ikus [\[XVI. m. \(49-VI\) 2\]](#) agiria).

1.1.1.3. Domingo Arrona zenak utzitako ondasunen inbentarioa

Ustez 1549ko uztailean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren eta Joan Igartza alkatearen aurrean, Ana Baltzola eta Pedro Arretxe apaiz lizentziatua elkartu ziren. Ana Baltzolarekin senar Domingo Arrona zestoarra 26 bat egun lehenago hil egin zen, eta testamentuan haren ondasunen inbentarioa egin zezatela agindu zuen.

Pedro Altzolarats, Frantzisko Artiga eta Katalina Sastarrain zestoarrak eta beste zenbait herritar ere bertan ziren. Alkateari ondasunen inbentarioa egin zezaten agindua eman zezala eskatu zioten. Horretarako lehenbizi zin egin zuten honako hauek: Ana Baltzolak, Pedro Altzolaratsek, Katalina Sastarrain inudeak eta Pedro Arretxek.

Domingo Arrona zenak utzitako ondasunak hauek ziren:

- Zestoako hiribilduko bere etxea, Ipintza aldekoa?, Arretxeazpiko sagastiekin.

- Gesalagako etxea bere gaztainadiarekin.

- Agirre etxea, Zestoako jurisdikziokoa, bere lur, soro, baso eta ganaduekin.

- Arroako Etxeandia, Debako partekoa, bertako ganaduaren erdiarekin.

- Txiriboga etxea, bere errota, lur eta basoekin.

- Aiako Laurgaingo Beogarate baserria, bere ondasun guztiekin.

- Zestoako hiribilduko beste etxe bat (Idiakaitz batxilerraren eta San Joan Etorraren etxeen ondokoa), Arretxe ondoko baratzearekin.

Domingo Arronak etxean zeuzkan tresneria, jantzi, arma eta abarren inbentarioa egin zuten. Besteak beste, hauek zeuzkan Domingo Arronak: eztainuzko 16 plater, letoizko erretilua, 5 argimutil, saltzontziak, motrailua, 11 tael, 2 kapa eta soinekoa, galtza beltzak, ezpata, larruzko korazak, balezta, pika, kutxak, haritz- eta gaztaina-oholak, upelak egiteko “mairan” oholak, 2 upel huts, burrunzki eta zartaginak, mahaia, eserlekuak, zilarezko agnus dei-a, etab.

1.2. irudia. Zestoako Arretxe.



Kutxa batean hariz bildurik zeuden agiriak ez zituzten ireki. Gainera, inbentariogileek aitortu zuteenez, geroago Domingo Arronaren beste ondasunik agertzen bazen, inbentarioari erantsi egingo zioten.

Inbentarioan lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Indo eta Joaniko Olazabal, eta Azpeitiko Pedro Altzolarats eta Domingo Arriaran apaiza (ikus [\[XVI. m. \(49-VII\) 1\]](#) agiria).

1.1.1.4. Domingo Arronak egindako testamentu itxia irekitzea

- 1549-VII-8an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Ana Baltzola alargunak eskea egin zion Joan Igartza alkateari. Gutxi gorabehera 16 egun lehenago bere senar Domingo Arrona hil egin zen.

Domingo Arrona zenak, Ana Baltzola emaztearekin batera, testamentu itxia egin zuen. Zigiluz itxita zegoen eta gainazalean eskribauaren sinadura eta ikurras gain, lekuko izandakoen eta Domingo Arronaren sinadurak zituen.

Testamentuko lekukoek agiri itxia iker zezatela, eta informazioa lortu ondoren, testamentua ireki eta argitara zezala eskatu zion Anak alkateari.

Joan Igartza alkateak Blas Artazubiaga eskribauari agindua emanda, honek testamentu itxi eta zigilatua erakutsi zuen. Alkateak testamentuaren gainazalean sinatu zuten lekukoei dei egin zien, zin egin ondoren agiri itxia ikertu eta beren iritzia eman zezaten.

Zin egindako eta alargunak aurkeztutako lekukoak zestoar hauek ziren: Jakobo Ipintza, Grazian Ezenarro, Pedro Altzolarats, Domingo Urbieta apaiza, Joanes Ibañeta apaiza, Joan Perez Altzolaraskoa eta Joan Otaegi.

Lekukoetako bakoitzak, bata bestearen ondoren, testamentu itxia eskuetan hartu eta ikertu egin zuen. Lekuko guztiek berdintsu erantzun zuten, hau da, agiria osorik eta ezer susmagarririk gabe zegoen. Gainazaleko sinadurak ezagutu zituzten, bai nork berea, bai beste lekukoena, bai eskribauarena eta bai Domingo Arronarena. Domingo Arronak zentzumena ba omen zuen testamentu itxia Ana Baltzolarekin batera egin zuenean, eta Ana emazteak sinatzen ez zekielako, haren ordezkari Domingo Urbieta apaizak sinatu zuen.

Lekuko Esteban Edarritzaga, Domingo Aizpuru eta Martin Indo izan ziren.

Ondoren Joan Igartza alkateak agindua eman zion Blas eskribauari, testamentuari zigilua kendu eta ireki



1.3. irudia. Aizarnako Igartzaundi.

zezan. Blasek ireki eta ozen irakurri zuen, eta guztiek entzun zuten. Joan Igartza alkateak, bere aginpidea erabiliz, agindua eman zion eskribauari testamentuaren kopiak Ana Baltzolarentzat eta bertan parte zutenentzat legezko balioaz atera zitzaizkien (ikus [XVI. m. (49-VII) 2] agiria).

1.1.1.5. Martin Esnalekin eta lagunekin zuen auzia

Bartolome Txiribogak Martin Diaz Mirubikoari egindako zorra Zestoako Domingo Arrona fidatzaileak ordaindu zuelako, Txiribogako burdinola Domingo Arronaren eskuetara etorri zen (ikus *XIV ZESTOA XVI. MENDEAN (1548)* liburuko [XVI. m. (48-I) 19] agiria).

- 1549-I-29an, Aizarnazabalen, Zestoako Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, Zestoako Martin Ondalde eta Esteban Edarritzaga arbitro epaileak agertu ziren. Lehenago Zarauzko Martin Esnalek, Aizarnazabalgo Joan Atristainek, eta Zarauzko Domingo Agotek eta Joan Arbestainek, Domingo Arronaren Txiribogako burdinolatik mazo-burua, sutegiko burdinazko erremintak eta beste zenbait pieza eraman zituzten.

Domingo Arronak auzi kriminala ipini zuen haien aurka Probintziako korrejidorearen aurrean, eta ondoren bi aldeek (Domingo Amilibia eskribauaren aurrean) konpromisoa hartu zuten auzia arbitro epaileen esku uzteko. Zestoako Martin Ondalde eta Esteban Edarritzaga arbitroek beren epaia eman zuten: Martin Esnalek eta lagunek Domingo Arronari hurrengo Pazko maiatzekorako 8 kintal burdina pletinatan (2na dukatekoak izanik) emango zizkioten Beduako ala Oikiako erreterian.

Horrez gain, Martin Esnalek eta lagunek Domingori 5 dukat emango zizkioten, auzi-gastuengatik, hurrengo zaldun-inaute egunerako.

Arbitroek beren epaia Domingo Amilibia eskribauaren aurrean eman zuten, eta bertan ziren Domingo Arrona, Martin Esnal eta Joan Arbestain ere. Bi aldeek onartu zuten arbitroen epaia.

Lekuko honako hauek izan ziren: Aizarnazabalgo Migel Agirre erretorea eta Domingo Aizarnazabal, eta Zestoako Martin Indo (ikus [XVI. m. (49-I) 2] agiria).

1.1.2. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren testamentu itxia eta Liliko maiorazkoa

- 1549-X-4an, Zestoako Lilin, Donostiako Migel Idiakaitz (edo Migel Perez Idiakaizkoa) eta Zestoako Esteban Eztiola eskribauen aurrean, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak (Liliko jaunak) testamentu itxia egin zuen. Aldi berean Liliko maiorazkoa ere sortu zuen.

Liliko Joan Perez jauna gaixo zegoen eta agindua eman zuen hiltzen zenean San Frantziskoren abitua jantzita Zestoako elizan lilitarren kaperan lurpera zezaten. Bertako aldarean egingo zizkioten hiletak eta elizkizunak. Han 400 requiem meza emango zituzten Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren arimaren alde. Meza bakoitza eman ondoren apaiza haren hilobira joan eta errespontsua errezatuko zuen. Meza bakoitzeko erreal erdia kobratuko zuen apaizak.

Debako Sasiolako San Frantzisko monasterioan 600 requiem meza emango zituzten, Elgoibarko San Frantzisko monasterioan 500 meza, eta Arantzazukoan beste 500 meza. Meza bakoitzeko Gaztelako erreal erdia kobratuko zuten.

Mairuen mendeko gatibu kristauak askatzeko dukat erdia eman zuen Joan Perezek, eta honako limosna hauek ere bai: Zestoako elizari 8 dukat, Aitzeko Santa Engrazia ermitari dukat bat; Zestoako ospitaleari dukat bat; Arroako San Esteban elizari 2 dukat; Itziarko elizari 3 dukat; Debako Andre Mariaren elizari 3 dukat; Getariako San Blasi dukat bat; Aizarnazabalgo San Migel elizari dukat bat; Oikiako San Bartolomeri dukat bat; Askizuko San Martin ermitari dukat bat; Guadalupeko Andre Mariari dukat bat; Galiziako Santiagori dukat bat; eta Iruñeko Andre Mariari dukat bat.

Horiez gain Joan Perezek 4na dukat eman zizkien Sasiola, Elgoibar eta Arantzazuko San Frantziskoren



1.4. irudia. Lili jauregia.

monasterioei, Azpeitiko moja beaten monasterioari eta Elgoibarko Sortze Garbiaren monasterioko mojei, haren arimaren alde otoitz egin zezaten.

Zestoako elizan, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa hiltzen zenean, Liliko maiorazkoaren jabeak hiletak, hirurrena, bederatziruena, urteurrena eta bigarren urteurrena egingo zituen. Urtebetez igandero ogia emango zuen elizan. Gainera urtero urteurrena egingo zuen abuztuko Andre Mariaren aurreko larunbatean Joan Perezen, bere arbasoen, emazte Maria Joanez Zuazolakoa zenaren eta etxekoen arimen alde.

1.1.2.1. Liliko maiorazkoa sortzeko arrazoiak

Pertsonak eraikuntzak, ekintza gogoangarriak, azien-
dak, ohoreak, etab. sortu eta edukitzeko joera dute-
lako, eta ondorengoei uzteko, oso baliagarria zen
maiorazkoak sortzea. Pertsona aberats eta ohoretsuen

bidez hobeto zerbitzatzen ziren Jaungoikoa eta erre-
ge-erreginak.

Hori guztia denboran zehar zatitu eta gal ez zedin,
komeni zen maiorazkoan bildutako ondasunak mul-
tzo bakar, zatiezin eta saldu edo besterendu ezinean
mantentzea.

Horregatik, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak Liliko
maiorazkoa sortu zuen bere testamentu hartan, eta oin-
ordekoari, maiorazkoaz gain, herenaren eta bostenaren
hobekuntza eman zion.

Beraz, maiorazkoan eta hobekuntzan bildutako on-
dasun guztiek gorputz bakar eta zatiezina osatu zuten.
Oinordeko bakarra izango zen haren jabea, eta ezingo
zuen bertako ondasun-zati txikiena ere saldu, truka-
tu, besterendu edo zorpetu. Oinordeko batetik bestera
osorik pasatuko zen maiorazko-jabetza.

Maiorazko-jaberen batek bertako ezer salduko
balu, jabetza galdu egingo luke, eta oinordetzan hu-
rringo legokeena jabetuko litzateke maiorazkoaz.

Maiorazkoan bildutako ondasunak ezingo ziren hi-
potekatu, zorpetu edo beste eraren batera lotu. Maio-
razkoan zeuden ondasunak saltzeko baimena errege-
erreginei, Aita Santuari edo beste norbaiti eskatzen
bazion, jabetza galdu egingo zuen eta hurrengo oin-
ordekoarengana pasatuko zen maiorazkoa.

Maiorazkoan bildutako ondasunek emandako
errenta eta frutuak erabili ahal izango ziren fami-
liakoak elikatzeko, ikasketetarako eta bertako legezko
senideei dotea emateko. Maiorazkoaren jabeak gehie-
nez errenta eta frutuen erdia, eta gehienez 4 urterako,
hipotekatu edo zorpetu ahal izango zituen.

1.1.2.2. Liliko maiorazkoan bildutako Lili etxearen inguruko lurak

Liliko maiorazkoan bildutako lurren eta ondasunen
zati handi bat, Liliko dorretxearen inguruan eta peri-
metro baten barruan zeuden eraikin eta lurrek osatzen

zuten. Hor sartzen ziren honako hauek: Liliko dorretxea, Liliko olatxo, ibai ondoko errota, burdinola (bere eskubide, errota eta etxearekin) eta Olazarraga, Legoiaga, Sastarrain, Olazabalgoikoa eta Olazabalazpi baserriak, beren ondasun eta ganaduekin.

Liliko burdinolak bere eskubideak zituen Debako Kontzejuaren basoetan zura eta ikatza lortzeko. Gainera, Beduara etorritako burdin meagatik Lilikoek ez zuten anega garia ordaintzen, Otxoa Martinez Beduakoa zenarekin kontratua egin zutelako.

Lili inguruko lurretan belardiak, basoak, zuhaitzak, larreak, soroak, lurrak, etab. zeuden, eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak horien mugak zehaztu egin zituen bere testamentuan, mugarriak eta mugakideak zehaztuz.

Lehenbizi Zestoako zubiaren ondotik, Lili aldetik, hasi zen, bertan Liliko 2 haritz eta intxaurrondo bat zeudelako. Handik "Aizubiko uzabalaren barrena" izeneko lekura pasatu zen, eta ibai ertzean Debako lurretan Gurutze-marka zuen haitzeraino.

Handik aurrera mugak herri-bideak, mugarriek eta Gurutze-markako haitzek egiten zituzten, Albagirre-raino. Hango sagasti eta soroetatik gora Baltzolaraino iristen zen, eta aurrera jarraitzen zen, Debako herri-lurrek muga eginez. Ibañarriaga aldetik mugarri eta Gurutze-marketan aurrera, Legoiaga aldera eta Lertxundiaitza izeneko lekura zihoan muga. Handik aurrera Sastarrain aldera eta Uztaizueta? aldetik zetorren errekek Endoia aldera egiten zuen muga, Larrutxipian zegoen eta Gurutze-marka zuen haritzerraino, hau da, Larrutxipiraino.

Han haitzulo ondotik muga Karaobiagaraino eta Sastarraingo bideraino zihoan Uzelaieta aldera. Gero Uztaizuetatik? zetorren errekan gora Olazabal aldera zihoan, eta mugarriz mugarri Madaria izeneko lekuraino, eta Olazabalazpi aldetik Debako herri-lurrekin muga eginez Goltzibar aldera. Han Azpeitiko herri-lurren ondotik Agiretako iturriraino eta Ezkapaiko aldera Erroiaitzerraino zihoan muga.

Gero Goltzibartik Alastra, Elusa eta Ibulus ziren mugarri, eta Moztierreka aldera zihoan muga, Sastarraingo presa kurbatutik eta Armotzetik. Maria Perez Lizarraraskoaren (Blas Lasaren alargunaren) lurretatik eta Mozti etxearen lurretatik eta soroetatik Erretzabaleraino eta Elusaraino zihoan muga, Zestoako zubira iritsi arte.

Adierazitako mugek osatzen zuten perimetroaren barruko lur guztiak Liliko maiorazkoan bat eginda geratu ziren.

1.1.2.3. Liliko maiorazkoan bildutako beste zenbait ondasun

Adierazitako Lili inguruko perimetroaren barruko lurrez gain, Liliko maiorazkora beste lur eta ondasun hauek ere bildu ziren:

- Zestoako Mozti aldeko lursaila. Mugakide zituen Zestoako zubia, Erretzabalgo lurrak, Zestoako herri-lurrak, Mozti etxearen lurrak, Zabaleta eta Liliko burdinolako bidea.

- Zestoako Aizubiko erroten ubidearen eta Zestoako ibaiaren arteko lurrak, hasi konportatik eta Blas Lasaren Maria Perez Lizarraraskoa alargunaren lurretaraino.

- Aizubi aldeko beste lursail bat. Mugakide zituen Maria Perez Lizarraraskoaren lurrak eta Zestoako elizaren zentsu-lurrak (Maria Ipintza eta alaba Ana Auserorenak).

- Aizubi aldeko beste lursail bat. Mugan zituen Fernando Olazabal medikuaren eta honen seme Joan Fernandez Olazabalgoaren lurrak eta Pedro Artzubia-garen lurrak.

- Zestoako hiribilduko etxea, mugakide hauek zituellarik: kalea, eliz aldeko Kristobal Artzubia-garen etxea, harresia, eta Palankadoko portalera joateko kantoia. Bera zuen Zestoako elizako gizon-eserlekua, Artigagoikoa eta Portale etxearen artekoa.



1.5. irudia. Zestoako eliza.

- Zestoako harresiez kanpoko Errementarietxea izeneko txabola. Mugakide zituen Aizarnako bidea, Esteban Akertza zenaren lurak, Kristobal Artzubiagarenak eta Martin Ondalderenak.

- Lizarrarats azpiko sagastia. Mugan zituen Lizarrarasko sagastia, Ertxinbarrenean Enekosauztegiko sagastia, Aizarnako bidea, Zubiaurreko sagastia eta Zestoako Etxeandiko Martin Arzallusen sagastia.

- Zestoako Andre Mariaren elizan zeukan hilobia, San Sebastianen aldare aurrekoa, Sebastian Artazubiaga zenaren eta Joan Artazubiaga zenaren artekoa. Zestoako Ana Urkitzarendik jaso zen. Ana Urkitza alargundu zenean, Elgoibarko Santa Klara komentura moja sartu zen.

Ana Urkitzaren eta bere etxeko hildakoen alde urtero urteurrena eta urteko bost festaburuetan opalkuntza egin beharko zuen Liliko maiorazkoa zuenak, eta horretarako aipatutako Errementarietxea eta Lizarrarasko sagastia erabiliko ziren.

- Debako partean Zigaranzar baserria, bere lur eta ondasun guztiekin. Mugakide hauek zituen: Zigaran baserriko lurak, Debako herri-lurrak, Agiroko Otsaurteagako erreka, liho-aska eta Agirotik Indogaztelu aldea.

- Debako partean Olano baserria, bere lur eta ondasun guztiekin. Mugakide zituen Debako herri-lurrak, Galtzeruzagako gaztainadia, Sorarte aldeko mugarria, Txarrosoro? eta Eztaia aldea.

- Debako partean, gaztainadia eta intxaurdia, Aizubiko errotetatik, Iraetaktik Lilirainoko bidearen ondoan.

- Zestoako Arretxeazpian lursaila, mugakide hauek izanik: Arretxeko lurak, Aizubiko erroten ubideak, Domingo Arronaren lurak, Ibañetako etxearenak, Maria Martinez Olidengoarenak eta Domenja Aizarnarenak (hau da, Anton Arretxeren emaztearenak).

- Liliko kaperaren atzeko baratzea. Muga egiten zioten Esteban Akertza zenaren lurrek, Ertxiña aldetik Joan Fernandez Olazabalgoaren lurrek, Kristobal Artzubiaga eta emazte Graziana Zabalarenak, Joan Fernandez Arreitzaakoa hauspaginarenek eta Portale etxeko lurrek.

- Zestoako Bergazelaian lursaila. Mugan zituen jabe hauen lurak: Blas Artazubiaga, Martin Artzurriaga eta Joan Fernandez Arreitzaakoenak.

- Zestoako ospitale ondoko baratzea. Mugakide ziren Ausoroetxeko Ana Lasaoren lurak, Kristobal Artzubiaga eta emazte Graziana Zabalarenak.

- Zestoako Aiakelun lursaila, bere mugakide hauek zirelarik: Erretzabal aldetik Joan Akertzaren ondorengo lurrak, Jakobo Ipintzarenak, eta Atristain aldera Zestoako herri-lurrak.

- Txiribogako presa ondoko lursaila. Mugan zituen Zestoako Portale etxekoen lurrak, Kristobal Artzubiagarenak, Legazpitik zetorren ibaia (Urola) eta Zestoako herri-lurrak.

1.1.2.4. Liliko maiorazkoaren Bedamako ondasunak eta alkabaletako diruak

Liliko maiorazkoaren barruan bildu zituen Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak jaunak Bedaman zituen ondasun hauek eta zenbait alkabaletatik kobratzen zituen alkabala hauek:

- Zestoako partean, Bedamako Linatzetagoikoa eta Linatzetabekoa baserriak, Bedamako burdinola eta errota, etxea eta Saletxea, beren lur eta ondasun guztiekin. Mugakide hauek zituzten: Aia, Errezil eta Zestoaren arteko muga Galleku erreka, Getariako Joan Lopez Zarauzkoaren lurrak, Ezkurroerreka, Gurutze-marka, mugarria, Itetxeaga aldea, zenbait mugarri, burdinola eta Aiako lurrak.

- Bedaman, Errezilgo partean, Goardia izeneko lursaila. Mugakide hauek zituen: Galleku erreka, zenbait mugarri Ezkurroa aldera, Elusa izeneko bailaratxoa, Ezkurroerreka eta zenbait Gurutze-marka eta mugarri.

- Elgoibarko Lasalde, Gabiola eta Laplaza burdinoletoalkabaletatik edo hamarren zaharretik urtero kobratzen zituen 3.600 maraiak.

- Zarauzko herriaren alkabaletatik urtero kobratzen zituen 1.000 maraiak.

- Burgosko hirian alkabaletatik errege-pribilegioaz urtero kobratzen zituen 60.000 maraiak. (Kontuan hartzekoa da Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak bere testamentuan Gipuzkoatik kanpoko onibarririk ez zuela aipatu).

1.1.2.5. Liliko kapera eta elizako hilobi eta eserlekuak

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak Liliko maiorazkoan sartu zituen Zestoako elizan zituen kapera, hilobiak eta eserlekuak.

Andre Mariaren Sortze Garbia izena zuen kaperak, eta maiorazkoaren jabeak ahalmena izango zuen bertako kapilaua hautatzeko, eta nahi zuen bakoitzean aldatzeko. Aita Santuak, Iruñeko apezpikuak edo beste inork eragozpenak ipiniko balitu, maiorazkoaren jabeak ez zuen ezer ordaindu beharko, eta ez zuen meza eman beharrik izango. Kapera mantentzeko zeuden errentak maiorazko-jabeak gorde egingo zituen.

Eragozpenak urtebete baino gehiago irauten bazuen, kapilauak bere meza Gipuzkoako beste edozein eliza, ospitale edo monasteriotan emango zuen.



1.6. irudia. Lilitarren kapera.

Maiorazko-jabeak Liliko lurretan San Joanen edo beste edozein santuren izeneko ermita edo santutxoak eraiki ahal izango zuten, eta kapilauak bertan eman ahal izango zuten meza.

Zestoako elizako Liliko kaperarako, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren ama Domenja Lilik 300 dukat eman zituen, zentsuan ehuneko 5ean ipin zitezten. 15 dukateko errenta emango zuten urtero. Horietako 12 dukat kapilauarentzat izango ziren, eta 3 dukat kaperarako konponketa, eliz jantzi eta abarretarako.

Aipaturiko zentsuaren errenta kobratzen hasi arte, Joan Perezek agindu zuenez, 12 dukat kapilauari Elgoibarko hiru burdinoletako (Lasalde, Gabiola eta Laplazako) 3.600 maraietatik eta Zarauzko herriko 1.000 maraietatik ordainduko zizkioten.

Joan Perezek, aipatutako 300 dukatak zentsuan ipini ondoren, hau jasotako zorpetuak itzultzen bazituen, diru hura nola kudeatu ere zehaztuta utzi zuen.

Elizako kaperaz gain, Liliko maiorazkoan sartu zuten Zestoako elizan, aldareko harmailen ondoan, zegoen hilobia. Ofrenda egiten zen ondoan zegoen, Iraetako etxekoan eserlekutik eskuinera.

Horrez gain Liliko etxeak San Sebastianen aldairearen ondoan zituen bi hilobiak ere sartu zituzten maiorazkoan. Halaber Sastarrain etxeak San Sebastianen aldare ondoan zituen beste bi hilobiak ere. Gainera, maiorazkoan sartu zuten Zestoako elizan, ebanjelio aldera zuten eserlekua (Iraetako jaunarenaren ondokoa).

1.1.2.6. Liliko maiorazkoaren jabea izendatzeko arauak

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren emazte Maria Joanez Zuatzolakoa zenak bere testamentuan oinordeko unibertsal seme zaharrena (Joan Perez Lilikoa edo Idiakaizkoa) izendatu zuen. Hari eman zizkion bere dotea, irabaziak, ondasunak, eta herenaren eta bostenaren hobekuntza.

Horrez gain Maria Joanez emazte zenak seme nagusi eta oinordekoari utzitako hura guztia Liliko maiorazkoari lotu zion, handik aurrera dena multzo bakarra izan zedin. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak ere onartu egin zuen ondasun-elkarketa hura, eta bere oinordeko Joan Perez Lilikoa seme zaharrena izendatu zuen.

Aita hiltzen zenean, legezko seme zaharrena hila bazen, honen legezko seme nagusia izango zen maiorazkoaren jabe, eta semerik ez bazegoen legezko biloba zaharrena, nahiz eta bere osabak baino gazteagoa izan.

Joan Perez Lilikoak legezko semerik ez bazuen eta legezko alaba edo alabak bazituen, haietako bat izango zen oinordeko, Joan Perez Lilikoa aitak aukeratzen zuena. Alaba, ordea, ez zen aitaren baimenik gabe ezkonduko, eta baimenik gabe ezkontzen bazen, maiorazkoa eta oinordetza galdu egingo zituen.

Aitak Joan Perez Lilikoa semea bere onepenez eta berak aginduta bezala ezkontzea nahi zuen. Maiorazko-jabearen baimena beharke zuen ezkontzeko, handik aurrera, oinordeko izango zen edonork.

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak arauak ezarri zituen alabetan oinordekoa aukeratzeko, eta zalantza egon zitekeen beste hainbat kasutan oinordekoa hautatzeko. Adibidez, oinordeko izango zenak maiorazko-jabearengana esker txarreko azaltzen bazen, bikietan oinordeko zein izango zen erabakitzeko, oinordekoak delituak egiten zituenean jabetza beste batengana pasatzeko, oinordekoa gerran hiltzen zenerako edo gati-bu edukitzen zutenerako, oinordekoa eroa, gaixoa edo gai ez zenerako, edo erlijio-ordenetako zenerako, etab. Bereziki, eta luze eta zabal, deskribatu zituen testamentugileak delitu-motak eta horien egileek eragingo zituzten ondorioak.

Maiorazko-jabe beti legezko seme edo alabak izango ziren, eta ez gero Aita Santuak edo beste edonork legezkatuak. Zenbait salbuespen ere zehaztu zuen Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak bere testamentu hartan.

1.1.2.7. Liliko maiorazkoaren armarrria

Liliko maiorazkoaren jabe izango zenak Lili eta Idiakaitz deiturak erabiliko zituen; baita emakumea baldin bazen ere, eta haren senarrak ere halaxe erabiliko zituen.

Armarrri gisa ere Lili eta Idiakaitz deiturak erabiliko zituzten, hau da, urrezko eremuan 5na lili-hostoko 3 buru, eta zilarrezko eremuan idi uherra haritz berdean zeharka.

Liliko maiorazkoaren jabeek ezingo zuten beste armarrri edo intsigniarik erabili, baina barruko zerrenda edo orladuran beste irudi batzuk ipini ahal izango zituzten.

Arau hau betetzen ez zutenek maiorazko-jabetza galdu ahal izango zuten, testamentuan ipinitako bidearen arabera. Eskea nork eta nola egin, epeak eta gainerako xehetasunak (Indietan, mairuen gatibu, Jerusalemen edo Espainiako erreinuetan egotearen arabera) zehaztu zituen.

Maiorazko-jabea beste maiorazko-jabe batekin ezkontzen bazen, Lili eta Idiakaitz deiturak erabiliko zituzten. Gainera Liliko etxean biziko ziren, baina salbuespenak izendatu zituen testamentugileak.

1.1.2.8. Maiorazkoa mantentzea, legeei uko egitea eta ondasunak biltzea

Maiorazkoa mantenduko zuen jabeari ordura arte aipatu gabeko egoerak suertatzen bazitzaizkion, arazoak ez ziren zuzenbide arruntaren bidez, foruaz edo ohituraz ebatziko, testamentu hartan emandako arauen arabera baizik.

Horrez gain, maiorazkoaz herenaren eta bostenaren hobekuntzarekin jabetzen zenak, zin egin beharko zuen bertako arauak beteko zituela, eta eskribau aurrean ondasunen inbentarioa egingo zuela.

Maiorazkoaz jabetzen zenak uko egingo zien ordura arte ezarritako arauen aurkako lege, foru, erreinuko zuzenbide zibil eta kanoniko, ohitura, usadio eta es-



1.7. irudia. Lili-Idiakaitz armarrria.

tatutu guztiei. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak zehatz-mehatz agindu zuen Liliko maiorazkoan bildutako ondasun guztiek betiko bildurik, bat eginik eta murrizketarik gabe, mantendu behar zutela.

Ondasunak honako hauek ziren: Maria Joanez Zuatzolakoa emazte zenak ezkontzara ekarritakoak, Joan Perez senarrak Domenja Lili amaren dohaintzaz eta herentziaz ekarritakoak (inbentarioan eta testamentuan adieraziak), eta geroztik erosi, eraiki, hobetu eta lortutakoak.

Joan Perezek merkatari gisa, galerak ere izan zituen itsasoan eta lehorrean, bere tratu, salgai eta negozioetan. Gainera, familiako emazte eta seme-alabak eta etxea zegoen mailan mantentzen ere bere gastuak egin zituen.

1.1.2.9. Maiorazkoan bildutako ondasunak ongi kudeatu beharra

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak bere testamentuan arauak eman zituen maiorazkoan bildutako ondasun-

en errenta eta etekinetatik bizitzeko. Eraikinak, presak, tresneria, etab. behar bezala konponduta mantenduko ziren.

Haritzak oinetik ez ziren moztuko ikatza egiteko edo egurretarako, baina bere garaian lepatu ahal izango ziren. Gaztainondoak txertatu egingo ziren pertsonak fruitua jan zezaten eta urdeak gizen zitezten. Lizarrak ere beste lan batzuetarako utziko ziren.

Haritz, gaztainondo eta intxaurrondo zaharrak oinetik mozten zirenean, mota bereko landareak aldatuko zituzten. Liliko dorretxe eta baserrien inguruetan sagastiak eta fruta-arbolak edukiko zituzten. Mintegiak ere landuko zituzten.

Zuhaitzak aldatuko zituzten lurretan, alea ereiteko soroetan izan ezik. Ganaduak, berriz, erdi bana haziko zituzten maizterrekin, nagusiak haiek hazten gasturik izan gabe. Ganaduek emandako etekina segurua ez izan arren, beti mantenduko zen maiorazkoaren barruan ganadu-kopuru egokia.

Liliko dorretxean zeuden kutxak, upelak eta tresneria ere berrituko ziren, eta baserritar maizterrei kontu hartuko zieten, zituzten frutu, ale, ganadu eta abarri buruz.

Joan Perezek bere testamentuan agindu zuenez, bera hil eta maiorazko-jabe Joan Perez Lilikoa seme zaharrenaren edo beste seme-alaben bizialdian zuhaitzak ez ziren oinetik moztuko. Salbuespena ikatze-tarako txara, eraikinetarako zura eta Lili etxerako sugurra ziren. Haritzak ere, bere garaian, lepatu ahal izango zituzten.

Joan Perez aitak aholkua eman zion seme oinordekoari, bere burdinolak errentan olagizonen bati eman ziezazkion.

Bestalde, maiorazkoko lurretan sortutako frutuen hamarrenak eta hasikinak elizari zuzen ematea gomendatu zuen. Horrez gain, Zestoako elizara Joan Perez hil eta hurrengo 20 urteetan etortzen ziren Guru-

tzada Santuko buldak hartu egingo zituen maiorazko-jabeak, haren arimaren alde izan zitezten.

1.1.2.10. Oinordekoaren anai-arreben doteak

Joan Perezen emazte Maria Joanez Zuatzolakoak bere testamentuan oinordeko ez ziren beren seme-alabei urrezko 150 florin agindu zien bakoitzari dote gisa. Andres, Domingo, Martin, Migel eta Maria Perez Lilikoa anai-arrebak ziren, besteak beste, beren legezko seme-alabak. Joan Perez senarrak, bere aldetik, aipaturiko seme edo alaba bakoitzari (Martini izan ezik), beste 850 florin agindu zizkien. Beraz, bakoitzak 1.000 florin kobratuta, Liliko maiorazkoari ezingo zioten beste seniparterik eskatu. Bestalde, Maria Perez Lilikoa alabak zaindu omen zuen aita bere gaixoaldietan.

Martin Perez Lilikoa semeak mezako apaiz izan nahi ome zuen. Beraz, ama zenak agindutako 150 flori-
nez gain, aitak beste 500 florin agindu zizkion. Gainera, bere bizialdirako, meza eman eta hil arte, Zestoako hiribilduan Ana Ipintza zenari erositako Errementarie-txean biziko zen. Berak erabiliko zituen, gainera, Lizarrarats azpiko sagastia eta Enekosauztegikoa. Martinek, ordea, onartu egin beharko zuen eskribau aurrean ondasun haiek Liliko maiorazkokoak zirela.

Oinordekoaren anai-arreba hauek legezko seme-alabarik gabe hiltzen baziren, edo izandako seme-alabak seme-alabarik gabe hiltzen baziren, bakoitzak, aipatutako eta jasotako doteak itzuli egin beharko zituen Liliko maiorazkora.

Joan Perezen eta emazte Maria Joanezen alaba Domenja Perez Lilikoa gurasoek oinordegabetu edo desheredatu egin zuten, Zestoako Bañezetxeko Domingo Amilibia eskribauarekin isilpean eta gurasoen baime-nik gabe ezkondu zelako. Hala ere, aitak 800 florin agindu zizkion Domenja alabari, baina honek ezingo zuen beste ezer eskatu, eta seme-alabarik gabe hilez gero, itzuli egin beharko zituen.

Joan Perezen eta Maria Joanez emaztearen alaba Ana Perez Lilikoa ere isilpean ezkondu zen Migel Zubel-

1.8. irudia. Zestoako
Bañezetxea.



tzurekin, eta Ana ere desheredatu egin zuten. Ana Perez Lilikoa alabari urrezko 50 florin agindu zizkion aitak, Domenja ahizpari ipinitako baldintzak betetzekotan.

Joan Perez testamentugileak zioenez, Usurbilgo Domingo Itsasalderen? itsasontzia burdinaz kargaturik zuen Sevillara bidaltzeko. Bidaia hartan galerak sortzen baldin baziren, Andres, Domingo, Martin, Migel, Maria eta Domenja seme-alabek ordaindu beharko zituzten, agindu zitzaizkien doteetatik.

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak bere oinordeko seme zaharrenari urrezko 500 dukat utzi zizkion maiorazkoan zeuden ondasunetatik kanpo, baina hau hiltzen zenean bere oinordekoari maiorazkoan betiko sartuta utzi beharko zizkion.

Domingo Itsasalde? usurbildarrak bere itsas bidaia amaitzen zuenean, Andres, Domingo, Martin eta Migel semeei agindutako dotea 25 urte betetzen zituzten arte Gipuzkoako ospe oneko pertsonaren baten esku utziko zuten, etekina atera ziezaion.

Joan Perez Lilikoak bere arreba Maria gaztea bere etxean edukiko zuen, eta senarra bilatuko zion. Andres, Martin eta Migel anaiak ere Liliko etxean edukiko zituen 25 urte betetzen zituzten arte. Martin Pe-

rez Lilikoa anaiari doteko diruen etekinetatik edo doteko kopurutik apaiz-ikasketak ordainduko zizkion.

Joan Perez testamentugileak bere oinordekoari bi kontu-liburu utzi zizkion. Bata berak egindako tratua zen, eta bestea ordaindutako jornalen liburua. Martin Lizarrarats eta Martin Lizaso zenduekin izandako tratuen kontuak baino ez zeuden zintzilik garbitu gabe. Ez zuen Joan Perezek bere arreba Maria Perez Idiakaitz-Lilikoarekin inolako konponduzinik eta etsaitasunik nahi.

Joan Perezek ama Domenja Lili zenaren liburua ere utzi zuen, baina haren edukia bere liburuetara pasata zeukan.

1.1.2.11. Liliko maiorazkoa sortzeko errege-baimenak, 1519koa eta 1539koa

Liliko maiorazkoa sortzeko lehen baimena 1519-VI-18an eman zioten Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari Karlos enperadoreak eta ama Joana *Eroa* erreginak, Bartzelonan egindako errege-gutunaz.

Baimenean arauak eman zituzten maiorazkoan sartutako ondasunak zatitu eta saldu gabe mantentzen. Joan Perezek erabaki ahal izango zituen, nahi

zuenean, oinordekoa aukeratzeko arauak zein izango ziren. Bere bizialdian eskubidea izango zuen maiorazkoa sortzeko, aldatzeko, deuseztatzeko eta, nai zuenean, berriz sortzeko. Maiorazko-jabeak delituak egiten bazituen egin beharreko urratsak ere adierazita utzi zituzten.

Maiorazkoa sortzeko beste baimen bat, aurrekoaren antzekoa, Karlos enperadoreak eta ama Joana *Eroa* erreginak Toledon 1539-II-21ean egindako errege-gutunaren bidez eman zioten Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari.

Joan Perez testamentugilea errege-baimenez gain Zamorako Toro hiriko legeaz baliatu zen, maiorazkoari herenaren eta bostenaren hobekuntza gehitzeko. Maiorazkoari erantsitako ondasunak ezingo ziren behin ere galdu.

Joan Perezek bere seme Joan Perez Lilikoa izendatu zuen Andres, Domingo, Martin, Migel eta Maria seme-alaben administratzaile, 25 urte betetzen zituzten arte.

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak lehenago egindako testamentuak baliogabetu egin zituen. Bere oinordeko eta testamentu-betearazle Joan Perez Lilikoa seme zaharrena izendatu zuen.

1.1.2.12. Testamentu itxia eskribau eta lekukoan aurrean aurkeztea

- 1549-X-4an, Zestoako Liliko dorretxean, Donostiako Migel Idiakaitz eta Zestoako Esteban Eztiola eskribauen aurrean, ohean gaixo egonik, testamentu itxia eta zigilatua aurkeztu zuen Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak. Migel Idiakaitzek idatzia zen eta 28 orri zituen.

Hura zen azken testamentua eta besteek ez zuten baliorik. Testamentu hartan honako hamabi zestoar hauek izan ziren lekuko: Joanes Ibañeta apaiza, Joan Igartza, Joan Ibañez Zubiaurrekoa, Esteban Edarritzaga, Domingo Garratza, Pedro Zubiaurre, Grazian Eto-

rraetxea, Joan Otaegi, Joan Urbietta, Domingo Baltzola, Joan Ereño eta Frantzisko Artiga.

Aipaturiko bi eskribauek ere sinatu zuten testamentu itxi eta zigilatu hartan.

1.1.2.13. Testamentu itxia alkatearen aurrean irekitzea

- 1549-XII-13an, Zestoan, Esteban Eztiola eta Migel Idiakaitz eskribauen eta Joan Fernandez Arreizakoa alkatearen aurrean Joan Perez Lilikoa agertu zen. Bere aita Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa zenak egindako testamentu itxiaren kopia nahi zuen. Bertan zeuden sinadurak (lekukoenak, eskribauenak eta testamentugilearenak) aztertu eta beharrezko testigantzak hartuta, testamentua alkate aurrean irekitzea nahi zuen Joan Perez oinordekoak.

Alkateak bi eskribauei agindua eman zien testamentua itxia erakutsi zezaten. Dei egin zien testamentua sinatu zuten guztiei ager zitezten. Lekuko honako hauek izan ziren: Azpeitiko Martin Landeta zurginmaisua, Jakobo Aizpuru eta Martin Etxeberria zurginak, eta Zestoako Esteban Eztiola semea, San Joan Amilibia eta Fernando Amilibia.

Joan Fernandez Arreizakoa alkateak deia lehen-txeago aipaturiko 12 lekuko zestoarrei bidali zien.

Hurrengo egunean, hilaren 14an, Esteban Eztiola eta Migel Idiakaitz eskribauak alkatearen aginduaren berri lekuko hauei eman zieten: Joanes Ibañeta apaizari, Pedro Zubiaurreri, Joan Urbietari eta Domingo Garratzari. Esteban Eztiola semea eta Migel Idiakaitzen morroi Anton Medina izan ziren lekuko.

Egun berean bi eskribauek alkatearen deia jakinarazitakoak hauek izan ziren: Esteban Edarritzaga, Joan Otaegi, Domingo Baltzola, Joan Igartza eta Frantzisko Artiga.

- 1549-XII-15ean, Zestoan, bi eskribauek Joan Ereñori jakinarazi zioten alkateak agindu zuena.

1.9. irudia. Aizarnako
Ereñoberri.



- 1549-XII-16an, Zestoan, bi eskribauen eta Joan Fernandez Arreizakoa alkatearen aurrean, Joan Perez Lilikoa oinordekoak eskea egin zion alkateari, han bildu ziren 11 lekukoei testigantzak hartu, testamentua itxia ikertu eta ireki zezan. Testamentuko 12 lekukoetatik Grazian Etorraetxea baino ez zen falta.

Zestoako Esteban Eztiola eta Donostiako Migel Idiakaitz eskribauek zin egin zuten erakutsitako testamentu itxia osorik eta ezer susmagarririk gabe zegoela, eta haiek idatzia zela. Ondoren aipatutako 11 lekukoek (Grazian Etorraetxeak izan ezik) zin egin zuten egia aitortuko zutela. Zin haietan lekuko hauek izan ziren: Domingo Arriaran apaiza (Zestoako Liliko kaperako kapilaua), Pedro Akoa, Joan Amilibia, San Joan Elgoibar eta Esteban Eztiola semea.

Ondoren bi eskribauek aitortu zutenenez, Grazian Etorraetxea Sevillara eta handik Indietara joana zen.

Jarraian Joanes Ibañeta apaizak bere testigantza eman zuen. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa zena ezaguna zuen. Gaixo zegoela testamentu itxia egin zuen Liliko dorretxean lekuko guztien aurrean. Han eman zien bere testamentua Joan Perezek bi eskriubauei. Migel Idiakaitzek idatzi zuen. Testamentu itxiaren azalean zeuden zigilu eta sinadura guztiak zuzen zeuden. Gra-

zian Etorraetxea Sevillara eta handik Indietara joana zen. Erakutsi zioten testamentua ongi zegoen, eta ez zuten ezer susmagarririk.

Joanes Ibañetak bezalaxe, berdin erantzun zuten eskribauek eta lekuko hauek ere: Joan Igartzak, Joan Ibañez Zubiaurrekoak, Esteban Edarritzagak, Domingo Garratzak, Pedro Zubiaurrek, Joan Otaegik, Joan Urbietak, Domingo Baltzolak, Joan Ereñok eta Frantzisko Artigak.

Ondoren Joan Perez Lilikoak aita zenaren testamentuaren kopia eskatu zion alkateari. Alkateak guzuz testametu itxiaren hariak moztu eta ireki egin zuen. Eskribauei agindua eman zien kopiak atera eta Joan Perez Lilikoari edo senideei eman ziezazkieten (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 4\]](#) agiria).

1.1.3. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak 1549an Burgosen jaso beharreko alkabalak

- 1549-X-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa agertu zen. Ahalordea eman zion Burgosko Alonso Maluenda jaunari, hiri hartako alkabaletatik 1549. urteari zegokion 60.000 maraiak Joan Perezentzat kobra zitzaizkien. Domenja Lili ama zenak lortu zuen errege-pribilegioz Burgosko hiritik urtero 60.000 ma-



1.10. irudia. Burgosko katedrala.

rai kobratzeko eskubidea, eta gero seme Joan Perezi dohaintzaz eman zion eskubide hura.

Ahalordean lekuko zestoar hauek izan ziren: Grazian Ezenarro, Martin Villafranca eta Joan Ezenarro (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 9\]](#) agiria).

1.1.4. Zestoa izandako ezkontzak

1.1.4.1. Anton Arronaren eta Ana Areitzagagoienaren arteko ezkontza

- 1549-IX-4an, Zumaian, Pedro Indoren etxean, Joan Arbestain eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Emaztea Arroako Ana Areitzagagoiena zen, Joan Perez Areitzagagoienakoaren alaba, eta senarra Arroako Anton Arrona edo Olea, hau da, Arroakolakoa. Anton eta Ana Erromako elizamaren aginduen arabera ezkondu ziren, senideen onespenez.

Joan Perezek alabari ezkontzarako dote gisa hauek agindu zizkion: urrezko 160 dukat, 4 ohe oso, 1,5 marko pisuko zilarrezko katilua, arropak eta arreo. Oheak, katilua, arropak eta arreo hurrengo San Migel egunean emango zizkion Joan Perezek alabari, eta 160 dukatak epeka.

Hurrengo urteko ekainean, San Joan egunean, 30 dukat ordainduko zizkion, eta handik aurrera urtebeteko tarteaz 30 dukateko beste 3 ordainaldi, eta handik urtebetara azken 40 dukatak.

Anton Arronak ezkontzara egindako ekarpena Arroakolako etxe, burdinola, errota eta gainerako ondasunetan zuen senipartea izan zen.

Ezkontza hura legezko seme-alabarik gabe, edo seme-alabek testamentua egin gabe, hausten bazen, ezkontzara ekarritako ondasun bakoitza (ezkontza aldiko irabaziekin) bere jatorrizko enborrera itzuliko zen.

Senar-emazteek bermeak eman zituzten ezkontza-kontratua betetzeko, eta Ana emazteak zin egin zuen kontratuak zioena bete egingo zuela.

Lekuko zumaiar hauek izan ziren: Joan Hernani lizentziatua (San Pedro elizako bikarioa), Joan Martinez Etxabekoa eta Joan Blas Orio.

- 1549-IX-19an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Anton Arrona eta emazte Ana Areitzagagoiena emaztea agertu ziren. Anak, agindu zioten dotea kobratzekotan, uko egin zion Areitzagagoienan zegokion seniparteari.

Lekuko zumaiar hauek izan ziren: Domingo Goarnizo, Joanes Arpide eta Joan Portukoa (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 1\]](#) agiria).

Ustez 1549-IX-25ean, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Joan Perez Areitzagagoienakoaren alaba Ana aurkeztu zen. Uko egin zion Arroako Areitzagagoiena etxean izan zezakeen seniparteari, bertako oinordekoaren alde.

Emakume ezkondua eta 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen agiriak zioenari ez ziola aurka egingo. Lekuko zumaia hauek izan ziren: Joan Martinez Etxabekoa, Joan Blas Orio eta Zumaiaiko bikario Hernani lizentziatua (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 10\]](#) agiria).

1.1.4.2. Andres Aranbururen eta Maria Andres Armendiaren arteko ezkontza

- 1549-IX-14an, Iraetan, Zestoako Domingo Amilibia eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senarra Andres Aranburu zen, Aizarnako Potzuetako Domingo Aranbururen eta Maria Aranburu emaztearen semea. Emaztea Maria Andres Armendia zen, Arroako Joan Armendiaren eta Maria Aniza Lasaren alaba.

Andres eta Maria Andres Erromako elizaren aginduen arabera ezkondu ziren, guraso eta senideen onespenez.

Domingo Aranburuk eta Maria Aranburu emazteak ezkonberriei Aizarnako Aranburu baserria, bere lur, baso, soro, larre eta ondasun guztiekin (Aizarnako elizan zeuzkaten hilobi eta eserlekuak barne) eman zizkieten.

Ondasun haien guztien gozamenaren erdia Domingo eta Maria gurasoentzat izango zen, hauek bizi ziren artean.

Gurasoak bizi zirela gozamenaren erdiari uko egiten bazioten, ezkonberriei mantenduko zituzten aita eta ama, eta hauek hiltzen zirenean ohiko hiletak eta elizkizunak egingo zizkieten Aizarnako elizan.

Aranburu etxeko Joan Aranburu, Lazaro Aranburu eta Maria Aranburu anai-arrebei zegozkien seni-partreak Andres anaiak eta Maria Andres emazteak ordainduko zizkieten. Joaneke eta Lazarok 5na dukat kobratuko zituzten, eta Maria Aranburuk 10 dukat.

Domingo Aranburu eta Maria Aranburu gurasoek fidatzailetzat Aizarnako San Joan Egaña eta Domingo Aranguren aurkeztu zituzten. Haiek arduratuko ziren ezkonberriei emandako ondasunen saneamenduaz. Domingo Aranburuk eta Maria emazteak konpromisoa hartu zuten bi fidatzaileak kontratu hartatik onik ateratzeko.

Ondoren Joan Armendiak eta Maria Aniza Lasao emazteak Maria Andres alabari dote gisa hauek agindu zizkieten: 80 dukat, 3 ohe oso (haietako bat jasoa zuen Maria Andresek), arropak, 6 ardi arkumeeekin, behia eta txerrikumea. 40 dukat egun hartan eman zizkieten, eta haietatik 16 dukat Domingo Aranburu kartzelatik ateratzeko erabili ziren. Hurrengo Eguberrietan 20 dukat, eta handik urtebetera azken 20 dukatak emango zizkieten.

1.11. irudia. Arroagoiko Armendi.



Oheak, arropak eta arreoak Maria Andres hurrengo San Joan egunean Aizarnako Aranburura joaten zenean emango zizkieten, eta ganaduak martxo amaieran (behia bi urte barru). Aipaturiko 80 dukatak Domingo Aranburu eta emaztearentzat izango ziren, Aranburuko zorrak ordaintzeko.

Joan Armendiak eta emazteak fidatzaile gisa Martin Usarraga eta Domingo Armendia aurkeztu zituzten.

Ezkontza hura legezko seme-alabarik gabe, edo seme-alabek testamentua egin gabe, hausten baldin bazen, ezkontzara ekarritako ondasun bakoitza (ezkontza aldiko irabazien erdiarekin) jatorrizko enborrera itzuliko zen.

Andres Aranburuk eta emazteak, Joan Aranburuk eta Lazaro Aranburuk zin egin zuten ezkontza-kontratuak zioena bete egingo zutela.

Lekuko hauek izan ziren: Iraetako Nikolas Martinez Egiakoa jauna, Esteban Artiga eta Arroako Joan Sorazu bikario eta batxilerra (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 5\]](#) agiria).

1.1.5. Aizarnako elizari buruzko agiriak

- 1549-VII-20an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bere anaia Joan Otxoa Artazubiagakoa (Aizarnako erretorea) aurkeztu zen. Joan Otxoak zioenez, Aizarnako elizari ganaduak utzi zizkion.

Elizako administratzaileei 10 dukat emango zizkieten, Joan Otxoak testamentuan aginduta bezala. Horrez gain, beste 20 dukat ere bai, eta Aizarnako elizari Jauna prozesioan ateratzen zutenerako 30 dukateko errezela erosiko zuten, ahalik eta azkarren, Blas Artazubiaga anaiak. Horretarako erretoreak 3 marko pisuko zilarrezko katilua hipotekatu egin zuten.

Bestalde, Pedro Arretxe lizentziatuak maileguz emandako sagarragatik 3 dukat ordaindu zizkion Joan Otxoari.

Eta, azkenik, Marina Edarritzagak Esteban Edarritzaga ilobarekin erdi bana zituen ahuntzak ordaindu egin zizkion Joan Otxoari. Marinak, horrenbestez, oso gutxi zor zion erretoreari, Zuubeko zerbitzari eta serorak ere berretsi zuenez (ikus [\[XVI. m. \(49-VII\) 4\]](#) agiria).

1.1.5.1. Domingo Aisoro Aizarnako “epistolaniarako” aurkeztea

- 1549-VII-28an, Zestoako Enekosauztegin, Blas Artazubiaga eskribauaren eta Joan Igartza alkatearen aurrean Kontzejua bildu zen. Bertan ziren zestoar hauek: Domingo Garratza fiel errejidorea, Kristobal Erretzabal eta Joan Martinez Akoakoa zinegotzia, Gabriel Artzubiaga, Martin Ondalde, Frantzisko Artzubiaga, Joan Fernandez Olazabalgoa, Esteban Eztiola, Domingo Aranguren, Joan Bengoetxea, Martin Azkue, Martin Arzalluz, Pedro Egaña, Bizente Ezenarro, Nikolas Lizasoeta, Martin Legarda, Asentzio Igartza, Anton Aizarna, Joan Zelaia, Joan Fernandez Zubiaurrekoa, Martin Zubiaurre, Joan Olazabal, Joan Zubiaurre, San Joan Amilibia, San Joan Etxegarai, Joan Ereño, Blas Amilibia, Joan Azpiazu, Joan Perez Altzolaraskoa, Lope Ernataritz, Joan Arretxe, San Joan Gorriaran, Domingo Amilibia, Frantzisko Artiga, Fernando Zubeltzu, Pedro Olaskoaga, Anton Baltzola, Martin Zubiaurre, Petri Arizpe, Martin Gorosarri, Iñigo Otaegi, Pedro Altzolarats, Domingo Erretzabal eta Gregorio Elizalde.

Aizarnako elizan bi “epistolania” zeuden Grazian Arano apaiz-ikasle eta benefiziaduaren kargu, baina Salamancan ikasketak egiten ari zela, hil egin zen.

Kargu hura betetzeko apaiza apezpikuari aurkezteko eskubidea Zestoako Kontzejuak zeukan, eta herrian kargu hartarako mezako apaizik ez zegoelako, apaiz ikasten ari zen Domingo Aisoro aukeratu zuten. Domingo Sevillan zebilen, baina herrira laster itzultzekoa omen zen. Domingo pertsona zintzoa, trebea eta kantari ona omen zen.

Domingo Aisoro mezako apaiz izan arte, mezako beste apaiz batek beteko zuten kargu hura, bere sa-

1.12. irudia. Aizarnako Arano.



ria jasoz. Ahalordea eman zieten Esteban Eztiolari eta Joan Fernandez Olazabalgoari, Iruñeko Pedro Pacheco apezpikuari edo edozein ordezkariari eskea egiteko, Domingo Aisoro kargu hartarako izenda zezaten.

Kontzejuak konpromisoa hartu zuen Domingo Aisororen aldeko iritzian jarraitzeko eta ez aldatzeko. Bestela 50 dukateko isuna ordaindu beharko zuen: erdia errege-altxortegirako eta beste erdia apezpikuarentzat eta Domingorentzat.

Domingo Sevillan zelako, Kontzejuaren erabakia Esteban Eztiola osabak eta Joan Fernandez Olazabalgoak onartu zuten haren izenean. Lekuko honako hauek izan ziren: Joan Otaegi, Esteban Eztiola eta Joan Fernandez Olazabalgoa (ikus [\[XVI. m. \(49-VII\) 5\]](#) agiria).

1.1.5.2. Grazia Igartza eta Graziana Lizasoeta serora izateko aurkezpena

- 1549-IX-15ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren eta Zestoako alkate Joan Igartzaren aurrean, Aizarnako parrokiako eliztar hauek bildu ziren: Joan Bengoetxea (elizako administratzailea), Pedro Auso-

roetxea, Pedro Iribarrena, Pedro Egaña, Esteban Edarritzaga, Domingo Aizpuru, Nikolas Lizasoeta, Joan Martinez Akoakoa, Bizente Ezenarro, Martin Ezenarro, Joango Ezenarro, Martin Amilibia, Domingo Aranguren, Joan Zelaia, Joan Arretxe, Joan Lizasoeta, Andres Aranburu, Asentzio Edarritzaga, Martin Ondalde eta Domingo Lizasoeta.

Joan Igartzaren Grazia Igartza alaba aspaldiko ohi-turaren arabera aurkeztu zen Aizarnako elizako serora izateko, eta han bildutakoek onartu egin zuten. Bere serora-eginkizunak ongi beteko zituen eta saria jasotzeko eta limosnetatik kobratzeko eskubidea izango zuen.

Lekuko hauek izan ziren: Domingo Garratza, Asentzio Edarritzaga, Andres Aranburu eta Pedro Iribarrena (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 6\]](#) agiria).

Jarraian, leku berean eta eskribau, lekuko, alkate eta eliztar berak hantxe izanik, Domingo Lizasoetaren alaba Graziana Lizasoeta aurkeztu eta onartu zuten Aizarnako elizako serora izan zedin, baina elizan kargu hori hutsik zegoenean izango zen serora; izan ere, Grazia Igartza horretarako izendatu berria baitzuten (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 7\]](#) agiria).



1.13. irudia. Zestoako Kontzejupea.

1.1.6. Zestoako Kontzejuaren bilera: Iturregiko auzia, herri-basoetako zura, etab.

- 1549-X-13an, Zestoako Enekosauztegin, Kontzejuua bildu zen Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Bertan ziren zestoar hauek: Joan Fernandez Arreitzakoa alkatea, Kristobal Artzubiaga fiel errejidorea, San Joan Egaña zinegotzia, Pedro Altzolarats, Esteban Edarritzaga, Pedro Akoa, Domingo Zuube, Joan Ereño, Joan Igartza, Martin Arzallus, Joan Arbestain, Martin Aizpuru, Anton Aizarna, Martin Itziar, Atristaingo Pedro Zubiaurre, San Joan Etxegarai, San Joan Amilibia, Frantzisko Artiga, Frantzisko Enparan eta Gregorio Elizalde.

Zestoako alkateak epaia eman zuen Iturregiko lur, aska eta iturriaz Kontzejuaren alde eta Domingo Garratzaren aurka. Domingok gora jo zuen korrejidorearengana, eta auziari segimendua egiteko Kontzejuak Kristobal Artzubiaga fiela izendatu zuen. Ahalordea eman zioten horretarako.

Lekuko Pedro Akoa, Esteban Edarritzaga eta Frantzisko Artiga izan ziren.

Kontzeju berean, ondoren, Martin Artzuriagak eskeia egin zuen. Lehenago etxea erre egin zitzaion, eta

berreraikitzeke zura eskatu zion Kontzejuari, ohitura zenez. Zelaitxikieta eta Etorrasaroeko herri-basoak izendatu zituzten zura hartzeko. Azpeitiko Martin Landeta eta Zestoako Pedro Segura zurgin-maisuek erabakiko zuten, etxearen planoak ikusita, zein zuhaitz hartu.

Ondoren, Pedro Altzolaratsek eskatu zuenez, herritarrek aipatutako herri-basoetatik ez zuten zurik hartuko. Bestela, ordenantzen arabera, 10.000 maraiko isuna ordaindu beharko zuten. Kontzejuak baso haietan zegoen zura saldu egingo zuen, bere gastuei erantzuteko.

Iturregiko auzia aztertu zuten, Joan Fernandez Olazabalgoak eta Domingo Garratzak eskatuta, lehentxeago adierazi dugunez.

Jarraian, Kontzejuak alkabalatan Gregorio Elizalderi gehiegi kobratu ziolako, 3 dukat itzuli egingo zizkieten.

Blas Artazubiagari lehentxeago aipatutako basoetan haritz batzuk emango zizkieten, bere etxeko eraikuntzarako.

Jarraian, Kontzejuaren aurrean haurra aurkeztu zuten. Martin Nuarberena omen zen. Martin, ordea,

errege-galeretara kondenatu eta zigortu zuen korrejidoreak, eta haurra hil ez zedin, Olazarragan bizi zen Kristobal Olaskoagaren emazteari eman zioten. Kontzejuak hurrengo bi urteetan 6na dukat emango zizkion (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 8\]](#) agiria).

1.1.7. Maria Otxoa Akertzakoaren tratu eta agiriak

1.1.7.1. Maria Otxoa Akertzakoaren obligazio-agiriak eta ordainagiria

- 1549-VIII-7an, Zestoako Atristain etxearen eta ibaiaren ondoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Nikolas Zabala-Lasao eta Maria Otxoa Akertzakoa agertu ziren. Maria Nikolas Martin Gartzia Lasakoaren alarguna zen, eta Maria Otxoa Frantzisko Olazabalen alarguna.

Maria Otxoak Maria Nikolasi maileguz 150 dukat eman zizkion urrezko dobloi eta koroatan eta errealetan, eta zorra hurrengo martxoaren hasieran ordainduko zion, Beduako errenterian 100 kintal burdina (bi "ertz" pisuko pletinatan eta zergak ordainduta) eman da. Beraz, 1 kintal = 1,5 dukateko prezioa egin zuten.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Otaegi, Asentzio Igartza eta Martin Ernataritz (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 1\]](#) agiria).

- 1549-X-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Maria Otxoa Akertzakoa eta Azpeitian bizi zen Ana Olazabal koinata azaldu ziren. Maria Otxoak, senar Frantzisko Olazabalek Ana arrebari testamentuan agindutako 15 dukatak ordaindu egin zizkion. Ondorioz, Ana Olazabalek ordainagiria eman zion Maria Otxoa alargunari.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Akoa, Joan Urbietta eta Joan Ezenarro (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 5\]](#) agiria).

- 1549-X-22an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Maria Otxoa Akertzakoa



1.14. irudia. Lasako ermita.

eta Maria Antxieta alargunak agertu ziren. Maria Otxoak Maria Antxietari maileguz urrezko 6 koroa eman zizkion (enperadorearen ikurra zutenak), eta Maria Antxietak zorra hurrengo ekaineko San Joan egunean ordainduko zion.

Segurtasun gisa Maria Antxietak Zestoako hiribilduan zuen etxe-orubea hipotekatu egin zuen, zor osoa ordaindu arte. Orubeak bere hormak eta muga hauek zituen: Maria Otxoaren etxea, Arretxerako belena, Maria Antxietaren etxe ondoko kale estua eta kalea.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Azpeitiko Andres Loiola erretorea eta Domingo Landeta apaiza, eta Zestoako Frantzisko Enparan (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 12\]](#) agiria).

1.1.7.2. Maria Otxoak Aizarnazabalgo Enbil eta Sarasola baserrietan ezarritako zentsua

- 1549-IX-10ean, Zestoako errebalean, Blas Artazubia-ga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Aizarnazabalgo Mateo Enbil eta Joan Sarasola, eta, bestetik, Zestoako Maria Otxoa Akertzakoa alarguna. Maria Otxoak enperadorearen irudiko urrezko 50 koroa eman zizkien hantxe bertan Mateori eta Joani, eta horrela urtero 3 koroako zentsua edo zerga (% 6koa) sortu zuten bi zordunek Maria Otxoari “in solidum” ordaintzeko.

Zentsu hark Aizarnazabalgo Enbil eta Sarasola baserriak, beren soro, lur, baso, sagasti, gaztainadi, intxaurdi, harizti, fruta-arbola, zuhaitz, larre, ganadu, aska eta ondasun guztiekin lotuta utzi zituen.

Enbil baserriak mugakide hauek zituen: Intxaurregiko lurrak, Atristaingo lurrak, Arlauretako lurrak, Esnalgo lurrak eta Zumaiako herri-lurrak. Sarasola baserriaren mugakide hauek ziren: Intxaurregiko lurrak, Narbartzako lurrak, Enbilgo lurrak eta Zumaiako herri-lurrak.

Mateo Enbilek eta Joan Sarasolak (edo hauen ondorengoe) Maria Otxoari (edo oinordekoei) urtero irailaren 10ean 3 koroa ordainduko zizkioten. Bestela zigor gisa 6 dukat ordaindu beharko zizkioten.

Mateok eta Joanek bere baserri eta lurrak ondo landuta eta konponduta mantenduko zituzten. Bi urtez jarraian Mateo eta Joanen aldeak Maria Otxoa Akertzakoaren aldeari 3 gehi 3 koroa ordaintzen ez bazizkion, haiek bi baserrien eta ondasunen jabetza galdu egingo zuten konfiskazioz.

Mateo eta Joanen aldeak ezingo zituen baserriak saldu Maria Otxoaren aldeari jakinarazi gabe, eta honek lehentasuna izango zuen bestek eskaintako prezio berean erosteko. Beste batzuei salduz gero, erosleek ezarrita zegoen zentsuaren baldintzak bete egingo zituzten. Gainera, salmenta-prezioaren ehuneko hamarra Maria Otxoaren aldeari ordainduko zion, salmenta zegoen bakoitzean.

Mateo eta Joanen aldeak 50 koroa Maria Otxoaren aldeari ordaintzen bazizkion, zentsua eta zerga bertan behera geratuko ziren. Mateo eta Joanen aldea arduratuko zen zentsuaz lotutako ondasunen eta zergen saneamenduaz. Aurkako demandarik bazegoen, Mateo eta Joanen aldea arduratuko zen auziez.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Arroako Domingo Amilibia, eta Zestoako Grazian Ezenarro eta Migel Idiakaitz (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 3\]](#) agiria).



1.15. irudia.
Aizarnazabalgo Enbil
baserria

1.1.7.3. Maria Otxoaren senar Frantzisko Olazabal zenak utzitako ondasunak

- 1549-X-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Pedro Akoa eta Maria Otxoa Akertzakoa elkartu ziren. Maria Otxoaren senar zena, Frantzisko Olazabal, Indietan ibili zen, eta hark utzitako ondasunak Maria Otxoaren ahalordeaz kobratzen saiatu zen Pedro Akoa alargunarentzat eta haren seme adingabeentzat. Pedro Akoa egun hartan eman zion Zestoan alargunari kontuen berri:

- Pedro Akoa urrezko 2.000 koroa kobratu zizkion Sevillan Domingo Lizarraratsi (1 koroa = 350 marai).

- Pedro Akoa beste 58.050 marai kobratu zizkion Domingo Lizarraratsi.

- Sevillako Kontratazio Etxean La Habanatik Sevillara etorritako 397 peso ken 6 tomin kobratu zituen (1 peso = 455,5 marai).

- Martin Lizarraratsi 22.038 marai kobratu zizkion.

- Urrezko 4 pusketa txiki eta zilarrezko pusketa bat salduta 8.275 marai kobratu zituen.

Beraz, Pedro Akoa kobratutakoak eta Maria Otxoari guztira ordaintzekoak 968.843 marai ziren. Pedro, ordea, ordainketa hauek egina zen Maria Otxoa Akertzakoari:

- Urrezko 500 koroa Jakobo Mallaren bidez (1 koroa = 350 marai).

- Urrezko 300 koroa Jakobo beraren bidez (1 koroa = 10,5 erreal).

- Urrezko 100 dobloi Jakoboren bidez (1 dobloi = 24 erreal).

- Migel Zubeltzuren bidez 300 koroa bidali zizkion.

- Pedro Akoa egun hartan Maria Otxoari eskura 20 koroa ordaindu zizkion.

- Egun hartan Pedrok eskura beste 44 dobloi ordaindu zizkion Maria Otxoari.

- Martin Lizarraratsen esku Sevillan 250 koroa geratu ziren Maria Otxoarentzat.

- Migel Zubeltzurekin Pedrok 3.716 maraiko gatzontzia bidali zion.

- Maria Otxoaren seme Jon Olazabalen jantzi, oinetako, elikadura eta eskolagatik 10.138 maraiko gastua egin zuen Pedrok.

- Pedro Akoa 2.799 maraiko auzi-gastuak egin zituen Sevillan Maria Otxoaren alde.

- Pedrok Sevillan San Joan Eizagirreri (Maria Akertza adingabearen prokuradoreari) urrezko 400 dukat ordaindu zizkion. Sevillako Melchor Portes eskribauaren aurrean egindako ordainagiria zeukan, urte hartako apirilaren 6koa¹.

- Pedro Akoa Joan Baionaren oinordekoen Pedro Durango prokuradoreari Gaztelako 171 erreal ordaindu zizkion.

- Frantzisko Olazabal zenaren liburuan Pablo Roqueta eta Ana Roqueta emazteari egindako 22.950 maraiko zorra azaltzen zen, eta hura Gonzalo Salzedo lonja-artekari eta prokuradoreari ordaindu egin zion Pedro Akoa.

- La Habanatik Sevillara 397 peso ekartzeagatik Pedro Akoa Pedro Andonegiri 8 koroa ordaindu zizkion.

- Pedro Akoa Sevillan Pedro Durangori 2.210 marai ordaindu zizkion, Frantzisko Olazabal zenak Indietara bidali beharreko kateagatik.

Beraz, Pedro Akoa egindako kobraketa eta ordainketa guztiak kontuan hartuta, Pedrok Maria Otxoari

31.000 marai zor zizkion. Marai haiek eta urrezko beste 8 dukat Maria Otxoak Pedro Akoari eman zizkion, Sevillan 11 hilabetez Maria Otxoarentzat eta seme adingabeentzat Frantzisko Olazabalen ondasunak eskuratzen egindako lanagatik. Maria Otxoa Akertzakoak eguneko 4 erreal ordaindu zizkion.

Martin Lizarraratsek Sevillan zeuzkan 250 koroa Maria Otxoa Akertzakoarentzat geratu ziren. Sevillako Pedro Gutierrez de Padilla eskribauaren aurrean egindako obligazio-agiria eman zion horretarako.

Horrenbestez, bi aldeek elkarri ordainagiria eman zioten, lekuko zestoar haiek izanik: Joan Indo, Joan Otaegi eta San Joan Elgoibar (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 3\]](#) agiria).

1.1.7.4. Maria Otxoak Zestoako Kortazar baserrian ezarritako zentsua

- 1549-X-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar haiek elkartu ziren: batetik, Kortazar baserriaren jabe Joan Kortazar eta Katalina Ereño emaztea, eta, bestetik, Maria Otxoa Akertzakoala alarguna.

Maria Otxoak senar-emazteei enperadorearen ikurra zuten urrezko 66 koroa eman zizkien, hau da, Espainiako koroakoak, eta haiek urtero 4 koroako

zentsu edo zerga (% 6koa) ordainduko zioten. Sortu zuten zentsu hartan, lotuta eta zergapean geratu zen Zestoako Kortazar baserria bere lur, soro, baso, sagasti, gaztainadi, intxaurdi, harizti, fruta-arbola, zuhaitz eta ganadu guztiekin.

Kortazarko lurren mugakide haiek ziren: Ondaldeko lurrak. Ausoroetxeko lurrak eta Saiazkoak. Sortu zuten zentsuaren baldintzak Maria Otxoak eta bere oinordekoek eta senar-emazteek eta hauen oinordeko eta ondorengoek beteko zituzten.

Joan Kortazarrek eta emazteak lehen zerga Maria Otxoa Akertzakoari Zestoan 1550-X-23an ordainduko zioten, eta handik aurrera urtero Joan Kortazarrek edo ondorengoek Maria Otxoari eta honen ondorengoei.

Joan Kortazarrek eta emazteak baserria eta lur, soro, etab. behar bezala landuta, zainduta eta konponduta mantenduko zituzten. Joan Kortazarrek (edo ondorengoek) bi urtez jarraian zentsuko 4 koroak ordaintzen ez bazituzten, Maria Otxoak edo ondorengoek baserria eta ondasunak konfiskatu egingo zizkien beretzat hartuz.

Bestalde, Joan Kortazarrek eta ondorengoek ezingo zioten baserria eliza edo monasterioei edo jaun



1.16. irudia. Zestoako Kortazar.

ahaltsuei saldu, eta pertsona arrunten bati saltzeko, lehenbizi eskainitako prezioan erosteko lehentasuna Maria Otxoak izango zuen. Maria Otxoak erosten ez bazuen, salmentan zentsuaren baldintza guztiak erosleak bere gain hartuko zituen, eta baserria saltzen zen bakoitzean, prezioaren ehuneko hamarra Maria Otxoari emango zioten.

Joan Kortazarrek edo ondorengoek zentsua baliorik gabe utzi ahal izango zuten, 66 koroa Maria Otxoa Akertzakoari edo ondorengoei ordainduta.

Ezbeharrak gertatuta ere (sutea, uholdeak, harria, errege-armada etortzea, etab.) Joan Kortazarrek edo ondorengoek beren 4 koroako zerga ordaindu egin beharko zuten. Joan Kortazarrek eta emazteak ziotenez, Kortazar baserria eta bere ondasunak hipotekarik eta inolako lotura edo zorrik gabeak ziren, eta aurrerantzean ere ez ziren zorpetuko. Ondasun haien saneamenduaz arduratuko ziren, behar zenean auziko gidaritzat hartuta, eta bermeak eman zituzten, Alcalá de Henaresko, Zamorako Toro hiriko eta gainerako bere aldeko legeei uko eginda.

Katalina Ereñok, emakume ezkondua zelako, zin egin zuen agiriak zioena bete egingo zuela. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Frantzisko Enparan, Joan Ezenarro eta Pedro Akoa (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 14\]](#) agiria).

1.1.7.5. Maria Otxoak Aizarnazabal etxean ezarritako zentsua

- 1549-X-30ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik, Aizarnazabal etxe eta baserriaren jabe Joan Aizarnazabal, emazte Maria Joanez Armendikoa eta ama Paskuala Areitzaga, eta, bestetik, Zestoako Maria Otxoa Akertzakoa alarguna.

Maria Otxoak senar-emazteei enperadorearen ikurra zuten urrezko 100 koroa eman zizkien, hau da, Espaniako koroak, eta Joanez, emazteak eta amak urtero 6 koroako zentsu edo zerga (% 6koa) ordainduko zioten. Sortu zuten zentsu hartan, zorpean eta zergapean lotuta eta hipotekatuta geratu zen Aizarnazabal-

go Aizarnazabal etxe eta baserria, bere lur, soro, baso, sagasti, gaztainadi, intxaurdi, harizti, fruta-arbola, zuhaitz eta ganadu guztiakin. Loturik geratu ziren, halaber, Aizarnazabalgo zubi eta ibai ondoan zuten hariztia, eta Errezustako errotan alea ordaindu gabe xehetzeko zuten eskubidea.

Aizarnazabal baserriko lurren mugakide hauek ziren: Aizarnazabal izeneko beste etxearen lurrak, Aizarnazabalgo elizaren lurrak eta Zumaia eta Saiatzko herri-lurrak. Sortu zuten zentsuaren baldintzak Maria Otxoak eta bere oinordeko eta ondorengoek, eta senar-emazteek eta hauen oinordeko eta ondorengoek beteko zituzten.

Joan Aizarnazabalek, emazteak eta amak lehen zerga Maria Otxoa Akertzakoari 1550-X-30ean ordainduko zioten, eta handik aurrera urtero, Joan Aizarnazabalek edo ondorengoek Maria Otxoari eta honen ondorengoei, Zestoan eskura emanda.

Joan Aizarnazabalek, emazteak eta amak baserria, bere lur, soro, etab. behar bezala landuta, zainduta eta konponduta mantenduko zituzten. Joan Aizarnazabalek (edo oinordeko eta ondorengoek) bi urtez jarraian zentsuko 6 koroak ordaintzen ez bazituzten, Maria Otxoak edo ondorengoek baserria eta ondasunak konfiskatu eta beretzat hartuko zituzten.

Baldin eta Joan Aizarnazabalek eta ondorengoek baserria saldu nahi bazuten, ezingo zioten eliza edo monasterioei edo jaun ahaltsuei saldu, eta pertsona arrunten bati saltzeko, lehenbizi eskainitako prezioan erosteko lehentasuna Maria Otxoa Akertzakoak (edo ondorengoek) izango zuen. Maria Otxoak erosten ez bazuen, salmentarekin batera zentsuaren baldintza guztiak erosleak bere gain hartuko zituen, eta baserria saltzen zen bakoitzean, prezioaren ehuneko hamarra Maria Otxoari emango zioten.

Joan Aizarnazabalek edo ondorengoek sortu berria zen zentsu hura baliorik gabe utzi ahal izango zuten, urrezko 100 koroa eta urte hartako zentsuaren zego-kion zatia Maria Otxoa Akertzakoari edo ondorengoei ordainduta.



1.17. irudia.
Aizarnazabalgo bista.

Ezbeharrak gertatuta ere (sutea, uholdeak, harria, errege-armada etortzea, etab.) Joan Aizarnazabalek edo ondorengoek beren urteroko 6 koroako zerga ordaindu egin beharko zuten. Joan Aizarnazabalek, emazteak eta amak ziotenez, Aizarnazabal baserria eta aipatutako bere ondasunak hipotekarik eta inolako lotura edo zorrik gabeak ziren, eta aurrerantzean ere ez ziren zorpetuko. Ondasun haien saneamenduaz Joan Aizarnazabal eta ondorengoak arduratuko ziren, behar zenean auziko edo auzietako gidaritzza hartuta, eta bermeak eman zituzten, Alcalá de Henaresko, Zamorako Toro hiriko eta bere aldeko legeei uko eginda.

Maria Joanez Armendikoak, emakume ezkondua zelako, zin egin zuen agiriak zioena bete egingo zuela. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Ezenarro, Josepe Igartza, Domingo Ereño eta Martin Artzubiaga (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 21\]](#) agiria).

1.1.7.6. Maria Otxoak Azpeitiko Joan Akotegiri eta lagunei ezarritako zentsua

- 1549-XI-16an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Azpeitiko Joan Akotegi, Domingo Egibar, Pedro Zabala eta Domingo Errekarte, eta, bestetik, Zestoako Maria Otxoa Akertzakoa alarguna.

Joan Akotegi Akotegi honanzkoa baserriaren jabe zen. Domingo Egibarrek berea zuen Egibar aundikoa baserria, honanzkoa. Pedro Zabalak kapariaren Zabala baserriaren jabetza berea zuen, eta Domingo Errekarte harginarena zen Errekarte goikoa baserria. Baserri hauek guztiak beren lurrekin Azpeitiko jurisdikzioak ziren.

Baserri hauetako bakoitzak bere mugakideak zituen:

- Akotegi baserriak mugakide hauek zituen: hanzko Akotegi baserriaren lurak, Loiolako Oialarrekoak, Akemendiko Antxeta? etxeak eta burdinoletarako errepidea.

- Honanzko Egibar handi baserriak mugakide hauek ziren: errepidea, Loiola etxearen lurak, Egibar bestekoaren lurak eta Azpeitiko Kontzejuarenak.

- Kapariaren Zabala baserriaren mugakide hauek ziren: Zabaletako lurak, Azpilagakoak?, Aretxabale-takoak eta Larrea etxeak.

- Harginaren Errekarte goikoa etxearen mugakide hauek ziren: Loiola etxearen lurak, Errekarte bestekoaren lurak eta errepidea.

Maria Otxoa Akertzakoak enperadorearen irudiko urrezko 166 koroa eta Gaztelako zilarrezko 7 erreal eman zizkien hantxe bertan Joan Akotegiri, Domingo Egibarri, Pedro Zabalarri eta Domingo Errekarteri, eta horrela urtero 10 koroako zentsua edo zerga (% 6koa) sortu zuten lau zordunek Maria Otxoari “in solidum” ordaintzeko.

Zentsu hark Azpeitiko aipatutako lau baserriak, beren soro, lur, baso, sagasti, gaztainadi, intxaurdi, harizti, fruta-arbola, zuhaitz, larre, ganadu, aska eta ondasun guztiekin lotuta utzi zituen.

Joan Akotegik eta bere hiru kideek (edo hauen ondorengoek) Maria Otxoari (edo oinordekoei) urtero azaroaren 16an 10 koroa ordainduko zizkioten. Bestela zigor gisa 20 dukat ordaindu beharko zizkioten. Ezbeharren bat izanda ere (uholdeak, suteak, errege-armadak etortzea, harria egitea, etab.), lau baserrija-beek urteroko zentsua ordaindu egin beharko zuten.

Aipatutako lau baserrija-bee azpeitiarrek etxe, baserri eta lurrak ondo landuta eta konponduta mantenduko zituzten. Bi urtez jarraian Joan Akotegik eta hiru lagunek, Maria Otxoa Akertzakoaren aldeari 10 gehi 10 koroa ordaintzen ez bazizkion, haiek lau baserrien eta ondasunen jabetza galdu egingo zuten konfiskazioz.

Joan Akotegiren aldeak ezingo zituen baserriak saldu Maria Otxoaren aldeari jakinarazi gabe, eta honek lehentasuna izango zuen bestek eskaintako prezio berean erosteko. Beste batzuei salduz gero, erosleek ezarrita zegoen zentsuaren baldintzak bete egingo zituzten. Gainera, salmenta-prezioaren ehuneko hamarra Maria Otxoaren aldeari ordainduko zioten, salmenta zegoen bakoitzean.

Joan Akotegik eta bere hiru lagunek 166 koroa eta Gaztelako 7 erreal Maria Otxoaren aldeari ordaintzen bazizkioten, zentsua eta zerga bertan behera geratuko ziren. Joan Akotegiren aldea arduratuko zen zentsuaz lotutako ondasunen eta zergen saneamenduz. Aurkako demandarik bazegoen, Joan Akotegi eta bere hiru lagunak arduratuko zen auziez.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Azpeitiko Andres Loiola erretorea, Martin Landeta eta Diego Aizpuru, eta Zestoako Frantzisko Enparan (ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 6\]](#) agiria).

1.1.7.7. Azpeitiko Andres Loiola erretoreak zentsuaz egindako aitortpena

Egun eta leku berean, eskribau beraren aurrean Azpeitiko elizako Andres Loiola erretorea eta Andres

1.18. irudia. Loiolako Egibar etxea.



Eizagirre hargin-maisua aurkeztu ziren. Biek aitortu zuten, egun hartan Maria Otxoa Akertzakoa 166 koroa eta 7 erreal ordainduta urteroko 10 koroako zentsua sortu zuten Joan Akotegik, Domingo Egibarrak, Pedro Zabalak eta Domingo Errekartek.

Zentsu hartara, ordea, lau baserrijabe azpeitiarrak Azpeitiko Andres Loiolak eta Andres Eizagirrek eskatuta sartu ziren, eta 166 koroa eta 7 erreal azken bi azpeitiarrek jaso zituzten.

Ondorioz, erretoreak eta hargin-maisuak konpromisoa hartu zuten Joan Akotegi eta beste hiru baserrija-beak zentsu hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko.

Andres Loiolak Azpeitiko elizako hasikin edo primizien herena hipotekatuta zeukan, Asentzio Urkitza eskribauaren bidez, Andres Eizagirreraren alde, eta biek egun hartan hasikinen herenaren eskubideak Joan Akotegiri eta beste hiru baserrijabeei eman zizkieten, zentsua indarrik eta baliorik gabe geratzen zen arte.

Andres Loiolak ahalordea eman zien Iruñeko apezpikutegiko epailei, Zaragozakoari eta Erromakoari, agiri hark zioena betearaz ziezaioten. Andres Eizagirrek errege-epailei eman zien ahalordea. Andres erretoreak zin egin zuen agirian agindutakoa bete egingo zuela.

Lekuko hauek izan ziren: Azpeitiko Martin Landeta, Diego Aizpuru eta Nikolas Aritzola, eta Zestoako Frantsizko Enparan (ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 7\]](#) agiria).

1.1.7.8. Maria Otxoak Aizarnazabalgo Atristain baserrian ezarritako zentsua

- 1549-XII-16an, Zestoako errebaletan, Blas Artazu-biaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik, Aizarnazabalgo Atristain baserriaren jabe Joan Atristain eta Domenja Atristain emaztea, eta, bestetik, Zestoako Maria Otxoa Akertzakoa alarguna.

Maria Otxoak senar-emazteei enperadorearen iku-rra zuten urrezko 66 koroa eman zizkien, hau da, Es-

painiako koroak, eta hauek urtero 4 koroako zentsu edo zerga (% 6koa) ordainduko zioten. Sortu zuten zentsu hartan, lotuta eta zergapean geratu zen Aizarnazabalgo Atristain baserria bere lur, soro, baso, sagasti, gaztainadi, intxaurdi, harizti, fruta-arbola, zuhaitz eta ganadu guztiekin.

Atristaingo lurren mugakide hauek ziren: Enbil baserriaren lurrak, Arlaureta baserriarenak, Esnal baserriarenak eta Zumaiako Kontzejuaren lurrak. Sortu zuten zentsuaren baldintzak Maria Otxoak eta bere oinordekoek, eta senar-emazteek eta hauen oinordeko eta ondorengoek beteko zituzten.

Joan Atristainek eta emazteak lehen zerga Maria Otxoa Akertzakoa Zestoan 1550-XII-16an ordainduko zioten, eta handik aurrera urtero Joan Atristainek edo ondorengoek Maria Otxoari eta honen ondorengoei.

Joan Atristainek eta emazteak baserria eta lur, soro, etab. behar bezala landuta, zainduta eta konponduta mantenduko zituzten. Joan Atristainek edo ondorengoek bi urtez jarraian zentsuko 4 koroak ordaintzen ez bazituzten, Maria Otxoak edo ondorengoek baserria eta ondasunak konfiskatu egingo zizkieten beretzat hartuz.

Bestalde, Joan Atristainek eta ondorengoek ezingo zioten baserria eliza edo monasterioei edo jaun ahaltsuei saldu, eta pertsona arrunten bati saltzeko, lehenbizi, eskainitako prezioan erosteko lehentasuna Maria Otxoak izango zuen. Maria Otxoak erosten ez bazuen, salmentan zentsuaren baldintza guztiak erosleak bere gain hartuko zituen, eta baserria saltzen zen bakoitzean, prezioaren ehuneko hamarra Maria Otxoari emango zioten.

Joan Atristainek edo ondorengoek zentsua baliorik gabe utzi ahal izango zuten, 66 koroa Maria Otxoa Akertzakoa edo ondorengoei ordainduta.

Ezbeharrak gertatuta ere (sutea, uholdeak, harria, errege-armada etortzea, etab.) Joan Atristainek edo

1.19. irudia.
Aizarnazabalgo
Atristain.



ondorengoek beren 4 koroako zerga ordaindu egin beharko zuten. Joan Atristainek eta emazteak ziotenez, Atristain baserria eta bere ondasunak hipotekarik eta inolako lotura edo zorrik gabeak ziren, eta aurreantzean ere ez ziren zorpetuko. Ondasun haien saneamenduaz arduratuko ziren, behar zenean auziko gidaritza hartuta, eta bermeak eman zituzten, Alcalá de Henaresko, Zamorako Toro hiriko eta gainerako bere aldeko legeei uko eginda.

Domenja Atristainek, emakume ezkondua zelako, zin egin zuen agiriak zioena bete egingo zuela. Lekuko apaiz hauek izan ziren: Zestoako Joanes Ibañeta eta Domingo Urbieta, eta Azpeitiko Domingo Arriaran (ikus [\[XVI. m. \(49-XII\) 1\]](#) agiria).

1.1.8. Maria Perez Arronakoa eta Lantzarote Beduaren senipartea

- 1549-II-16an, Azpeitian, Gipuzkoako Pedro Mercado korrejidoreak, Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauaren bidez, Azpeitiko eta Zumaiako alkateentzat agindua idatzi zuen. Batetik Maria Perez Arronakoak (Beduako andre alargunak) eta seme-alabek, eta, bestetik, Zumaiako Lantzarote Beduak (Maria Perezen koinatuak) auzia zuten, Lantzarotek Beduako etxean izan zezakeen seniparteagatik.

Maria Perezek, Andres Martinez Aroztegikoa prokuradorearen bidez, eskea egin zion korrejidoreari. Bere garaian Maria Perezek eta Otxoa Martinez Beduakoa senar zenak ezkontza-kontratua egin zuten, eta Lantzarotek bere seniparteari uko egin zion. Agiri haiek Azpeitiko eta Zumaiako Kristobal Gartzia Azkuekoa eta Joan Otxoa Eizagirrekoa eskribau zendeak idatzi zituzten. Bi eskribau haien erregistroak Joan Martinez Lasaokoa eta Joan Arbestain eskribauen eskuetara etorri ziren.

Beraz, korrejidorearen aginduz, Azpeitiko eta Zumaiako alkateen aginpideaz agiri haien kopiak aterako zituzten.

- 1549-II-26an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauak, Maria Perez Arronakoak eskatuta, aginduaren berri eman zion Lantzarote Beduari. Zumaiako Domingo Atristain eta Sebastian Agirre izan ziren lekuko.

- 1549-II-28an, Azpeitian, Pedro Uranga eskribauaren eta Martin Perez Eizagirre-Zurbanokoa alkatearen aurrean, Zestoako Martin Arbestain agertu zen Maria Perezen izenean. Lantzarote agertu ez zelata, Joan Otxoa Eizagirrekoa eskribau zenaren erregistroetan aipaturiko agiriak bila zitzala agindu zion Pedro Urangari; izan ere, Pedro Martinez Lasaokoa

Inkisiuzioko Kontseiluaren idazkari zen eta gortean zebilen. Lekuko Azpeitiko Pedro Santxez Enparangoa eta Pedro Errezusta izan ziren.

- 1549-IV-8an, Azpeitian, Martin Perez Eizagirre-Zurbanokoa alkatearen aurrean, Pedro Uranga eskribauak Joan Otxoa Eizagirrekoa eskribau zenaren erregistroko agiriak (ezkontza-kontratua eta seniparteari uko egitekoa) erakutsi zituen. Haiek aztertu eta iritzia emateko hiru Azpeitiar hauek zin egin zuten: Pedro Eizagirrek, Joan Martinez Enparangoak (Enparango jaunak) eta Bartolome Alkorkak.

Batak bestearen ondoren agiriak aztertu eta egiazkoak zirela aitortu zuten, hau da, Joan Otxoa Eizagirrekoa eskribau zenak bere eskuz idatziak eta sinatuak zirela.

Ondoren alkateak, bere aginpidea erabiliz, Maria Perez Arronakoarentzat haien kopia egin zezala agindu zion Pedro Urangari (ikus [\[XVI. m. \(49-II\) 1\]](#) agiria).

- 1549-VI-14an, Ibañarrietan, Zestoako Esteban Eztiola eskribauaren aurrean, Beduako Maria Perez Arronakoa alargunak ahalordea eman zien Azpeitiko Joan Fernandez Olazabalgoari eta Zestoako Frantzisko Artzubiagari. Hauek Azpeitiko eta Zumaiako alka-

teei Maria Perezek Otxoa Martinez Beduakoarekin egindako ezkontza-kontratua eta Lantarote Bedua koinatuak seniparteari uko eginez idatzitako agiria eskribauen erregistroetatik atera zitzala eskatuko zieten.

Lekuko honako hauek izan ziren: Frantzisko Arrazola, Zumaiako Joan Arbestain alkatea eta San Joan? Idiazabal.

- 1549-VI-15ean, Azpeitian, Joan Akemendi eskribauaren eta Martin Perez Eizagirrekoa alkatearen aurrean Zestoako Frantzisko Artzubiaga agertu zen. Maria Perezen ahalordeaz, Pedro Mercado lizentziatu eta korrejidorearen aginduz eskea egin zion alkateari, aipatutako agirien kopiak atera zitzaizkion. Maria Perezek Lantarote Beduarekin zuen auzirako behar zituen agiriak.

Lekuko Baltasar Igartza eta Martin Gaintza (Anton Gaintzaren semea) izan ziren.

Pedro Eizagirre lekukoak Joan Otxoa Eizagirrekoa eskribau zenaren erregistroetatik ateratako agiriak ikertu eta zinpean ontzat eman zituen. Lehenago Pedro Eizagirrek aitortpena Pedro Martinez Urangakoa eskribau zenaren aurrean zinpean egina zuen, eta orduan berretsi egin zuen.



1.20. irudia. Beduako itsasadarra.

Ondoren Martin Perez Eizagirrekoa alkateak, agiriak ongi zeudela ikusita, Joan Akemendi eskribauari Maria Perezentzat kopiak atera zitzala agindu zion, nahiz eta Lantzarote Beduak aurka egin.

Lekuko Bernal Berastegi eta Frantzisko? Gorriaran izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-VI\) 1\]](#) agiria).

1.1.9. Joaniko Arronaren eta Joan Fernandez Arreizakoaren arteko auzia

1540. urteaz gero Joan Arrona eta Maria Arrazola ezkongabeek Joaniko Arrona semea izan zuten, eta harrezkero auzitan ibili ziren Joan Arronaren familiakoak (Marina Arrona arreba batez ere) eta Joanikoren alde. Joan Arrona hil ondoren, Joanikok haren etxe, baratze, sagasti eta ondasunen seirena eskatzen zuen eta aldeko epaiak lortu zituen korrejimenduan eta Kantzularitzan (ikus *XI ZESTOA XVI. MENDEAN (1545)* liburuko [\[XVI. m. \(45-I\) 13\]](#) agiria).

Joan Arronaren arreba eta oinordeko Marina Arrona hil eta ondasunak Joan Fernandez Arreizakoa hauspaginaren eskuetara etorri ziren, eta honek ere jarraipena eman zion auziari. Kantzularitzan epaia Joaniko Arronaren aldekoa izan zen, eta ondasunak zatitu eta Joanikori seirena emateko auziak jarraipena izan zuen Gipuzkoako Pedro Mercado korrejidorearen aurrean.

- 1549-V-28an, Tolosan, Joan Fernandez Arreizakoaren izenean, Pedro Gartzia Salzedokoa prokuradoreak eskea egin zion korrejidoreari Joan Arrona zenaren (Joanikoren aitaren) ondasunak zati ez zitezten. Gainera, zatitzera jarrita, ondasunetan egindako hobekuntzak eta Marina Arrona zenari zegokion senipartea kontuan hartu beharko zituzten; baita ordaindu ziren zorrak ere.

- 1549-V-26an, Zestoan, Esteban Eztiola eskribauak ondasunen zatitzeaz korrejidorearen agindua berri eman zion Joan Fernandez Arreizakoari. Joanes Garratza apaiza eta Blas Artazubiaga eskribaua izan ziren lekuko.

1549-VI-1ean, Tolosan, Andres Martinez Aroztegioko prokuradoreak Joaniko Arronaren izenean eskea egin zion Pedro Mercado korrejidoreari, ondasunak zatitu eta epaiak betez seirena eman ziezaion. Banatu beharreko ondasunak hauek ziren: Zestoako hiribilduan etxea (Blas Artazubiagaren etxearen ondokoa); Esteban Eztiolaren lurren eta Ertxiña mendiaren ondoko sagastia; Blas Artazubiagaren sagastiaren ondoko sagastia; eta Joan Arronaren etxe ondoko baratzea.

Ondasun haien seirena bereizi eta Joanikori emateko Aiako Joan Olazabal maisua eta Joan Ibarrola maisua aurkeztu zituen Joanikoren aldeak. Joan Fernandezek bere pertsona izendatu behar zuen, edo bestela korrejidoreak izenda zezala eskatu zuen Andres prokuradoreak.

- 1549-VII-8an, Tolosan, Pedro Gartzia Salzedokoa berriz ere eskea egin zion korrejidoreari Joan Fernandez izenean, ondasunak zati ez zituzten.



1.21. irudia. Tolosako eguzki-erlojua.

- 1549-VII-11n, Tolosan, korrejidoreak bi aldeak auzitara onartzea erabaki zuen, eta testigantzak aurkezteko epea ezarri zien.

- 1549-VIII-26an, Zestoako Gurutzeagan, Esteban Eztiola eskribauaren eta Joan Igartza alkatearen aurrean, hauek aurkeztu ziren: Ibañarrietako Maria Arrazola eta Joaniko Arrona seme adingabea.

Joaniko Arronak zituen auzietarako tutorea behar zuen, eta lan horretarako Joanikok ama Maria aurkeztu zuen. Maria Arrazolak zin egin zuen tutorelanak zintzo beteko zituela, eta bere garaian ondasunak kudeatzeagatik kontuak behar bezala aurkeztuko zituela.

Maria Arrazolak Arroako Lope Irure aurkeztu zuen fidatzailetzat. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Ereño, San Joan Etxegarai eta Esteban Eztiola semea.

Jarraian Joan Igartza alkateak, bere aginpidea erabiliz, Joaniko Arronaren tutore Maria Arrazola ama izendatu zuen (ikus [\[XVI. m. \(49-V\) 2\]](#) agiria).

1.1.10. Domingo Aizarnatea, Martin Egaña eta Joan Zubeltzuren ordainagiriak

- 1549-V-5ean, Azpeitian, Martin Perez Eizagirrekoa eskribauaren aurrean hauek agertu ziren: batetik Azpeitiko Pedro Altuna, eta, bestetik, Aizarnako Pedro Aizarnatea. Bien arteko tratuen kontuak egin zituzten, eta Domingok Pedrori obligazio-agiria eman zion, urtebeteko epean 6 dukat eta 20 txanpon (1 txanpon = 7,5 marai izanik) ordaintzeko konpromisoa hartuz. Lekuko azpeitiar hauek izan ziren: Domingo Arriaran apaiza, Joan Otxoa Ondarkoa eta Joan Soraiz maisua (ikus [\[XVI. m. \(49-V\) 1\]](#) agiria).

- 1549-VIII-19an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bertako Martin Egaña eta Arroako Domingo Arretxe-Etxenagusia agertu ziren. Martinek Domingori obligazio-agiria eman zion, 6 dukat bi epetan ordaintzeko konpromisoa hartuz. 3 dukat hu-

rrengo San Migel egunean ordainduko zizkion, eta beste 3 dukat hurrengo Eguberrietan.

Martinek eta Domingok elkarrekin izandako beste tratu guztien kontuak garbituta geratu ziren. Lekukoe-tako bi Martin Artzubiaga eta Tomas Olaberria izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 5\]](#) agiria).

- 1549-VIII-19an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Zugasti “Ezkerra” agertu zen. Beste zordun batekin izandako tratuen kontuak egin zituzten, eta Joan Zugastik ordainagiria eman zion.

Lekukoak zestoar hauek izan ziren: Esteban Edarritzaga, Gregorio Elizalde eta Joan Pagino (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 6\]](#) agiria).

1.1.11. Joan Errementari, Martin Ezenarro, Martin Oleden eta Grazian Etorraetxearen obligazio-agiriak

- 1549-IX-14an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik Arroako Joan Errementari (Arroakolaren jabea), eta, bestetik, Zarauzko Lope Irure edo Leitzamendi. Lopek Joani lehenago maileguz urrezko 8 dobloi (16 dukat) eman zizkion, eta honek zorra hurrengo zaldun-inaute egunean ordainduko zion.

Obligazio-agirian lekuko zumaiar hauek izan ziren: Pedro Otxoa Iribekoa, Domingo Etxebeste eta Pedro Otsango (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 4\]](#) agiria).

- 1549-IX-15ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek agertu ziren: batetik, Martin Ezenarro zurgina eta Joan Zugasti, eta, bestetik, Bizente Ezenarro. Bizentek Martini hantxe maileguz 8 dukat eman zizkion, eta Martinek zorra hurrengo ekaineko San Joan egunean ordainduko zion.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren. Esteban Edarritzaga, Pedro Iribarrena eta Domingo Garratza (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 8\]](#) agiria).

- 1549-IX-22an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Martin Oliden eta Oiartzungo Katalina Iurrita elkartu ziren. Lehenago, Katalina neskatxa birjina izanik, Martinekin sexuharremana izan zuen eta umea eduki zuten. Ondorioz, umea elikatzeko Katalinari zenbait ordainketa egin zion Martinek, baina handik aurrera beste 8 dukat ordaintzeko obligazio-agiria eman zion Katalinari. 4 dukat hurrengo San Migel egunetik urtebetera ordainduko zizkion, eta beste lau handik beste urtebetera.

Katalinak, 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen obligazio-agiriak zioena bete egingo zuela. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Urbieta, Joan Martinez Akoakoa eta Gorriarango San Joan Zelaia? (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 9\]](#) agiria).

- 1549-X-1ean, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Etxeaundiko Martin Arzallus eta Grazian Etorraetxea agertu ziren. Grazianek Martini maileguz 8 dukat eman zizkion, eta Martinek zorra hurrengo ekaineko San Joan egunean ordainduko zion.

Lekuko Debako parteko Domingo Legoiaga eta Zestoako Domingo Gorosarri eta Martin Olauni izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 1\]](#) agiria).

1.1.12. Katalina Txiriboga, Domingo Aranguren, Martin Arano, Kristobal Indo eta Maria Olidenen obligazio-agiriak

- 1549-X-13an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Katalina Txiriboga (Pedro Txiribogaren alaba), Marina Txiriboga izeba fidatzailea, eta Aizarnazabalgo Domingo Amilibia bildu ziren. Domingok Katalinari mando zamari nabarra saldu zion 12 dukatean, eta Katalinak orduantxe 6 dukat ordaindu zizkion. Beste 6 dukatak hurrengo ekaineko San Joan egunean ordaintzeko obligazio-agiria eman zioten Domingori. Bitartean mandoa hipotekaturik geratu zen, Domingoren alde.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Frantzisko Artiga, Joan Pagino eta Gregorio Elizalde (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 6\]](#) agiria).

- 1549-X-16an, Azpeitian, Martin Perez Eizagirrekoa eskribauaren aurrean Aizarnako unibertsitateko Domingo Arangurennek obligazio-agiria eman zion Asentzio Eizagirre azpeitiarrari.

Domingok Asentziori maileguz 2 “ertz” pisuko bandako 30 kintal burdinaren balioa (1 kintal = 1,5 dukat izanik) maileguz eman zion. Domingok zorra martxoaren hasierarako, Beduan burdinak emanda ordainduko zion.

1.22. irudia. Aizarnako Ezenarrogoikoa.



Agirian lekuko Azpeitiko Joan Martinez Enparangoa eta Beltran Ugarte, eta Azkoitiko Joan Tolosa izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 11\]](#) agiria).

- 1549-X-29an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Zugasti eta Zestoako Martin Arano azaldu ziren. Joaneke Martini maileguz urrezko 2 dukat eman zizkion, eta honek zorra hurrengo Eguberrietan ordainduko zion.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joan Ezenarro eta Martin Ondalde, eta Arroako Martin Azkaeta (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 20\]](#) agiria).

- 1549-X-31n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Kristobal Indo eta Arroako Domingo Arretxe-Etxenagusia agertu ziren. Kristobalek Domingori obligazio-agiria eman zion, behia erosita dukata eta 3,5 erreal gero ordaintzekotan utzi zizkiolako.

Kristobalek zin egin zuen obligazio-agiriak zioena bete egingo zuela. Lekukoetako bi Domingo Ezenarro eta Domingo Aranguren izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 22\]](#) agiria).

- 1549-XI-3an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Elgoibarko Lope Nafarmendi eta Zestoako Maria Oliden aurkeztu ziren. Lopek Mariari obligazio-agiria eman zion, 17 erreal eta 10 maraiko zorra hurrengo Eguberrietan ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Lekukoetako bi Joan Olaso? eta Joan Urbieta zestoarrak izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 4\]](#) agiria).

1.1.13. Katalina Ibiakaitz, Domenja Akoabarrena, Joan Olazabal, San Joan Etxegarai eta Pedro Ausoroetxearen ordainagiriak

- 1549-VIII-13an, Zestoako Ibiakaitz etxean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Azpeitiko Martin Aizpuru errementaria, eta, bestetik, Zestoako Katalina Ibiakaitz (Martin Olidenean alarguna) bere seme-alaben tutore izanik.

Martin Olideneke testamentuan aginduta bezala, Martin Aizpuru ondasun batzuk hartuta Martin Olidenean zorrak eta elizkizun-gastuak ordaindu zituen. Kontuak eginda, Martin Aizpururi 2 dukat eman zizkion alargunak, eta egun hartara arteko kontuak garbituta geratu ziren.

Artean kobratzeko zituzten zorrak Katalinarentzat izango ziren, baina Otxoa Gobeori kobratzeko zegoena Martin Aizpurenentzat. Horrebestez, bi aldeek elkarri ordainagiria eman zioten.

Lekuko honako hauek izan ziren: Balmasedan bizi zen Joan Akotegi azpeitiarra, eta Zestoako Pedro Zubiaurre eta Joaniko Azpeitia (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 2\]](#) agiria).

- 1549-VIII-17an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aizarnako Domingo Elurra (izen-deitura berekoaren semea) eta Katalina Ibiakaitz alarguna bildu ziren. Katalinak Domingori 4 dukat eman zizkion, lehenago Katalinaren senar Martin Olideneke, Ibiakaizkoak, zor hori egin ziolako.

Domingo Elurrak Katalinari ordainagiria eman zion, eta 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen agiriak zioena bete egingo zuela. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Amilibia eskribaua, Gabriel Artazubiaga eta Joan Akoa (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 3\]](#) agiria).

- 1549-IX-29an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Domenja Akoabarrenak (Martin Ibañez Zubiaurrekoaren alargunak) ordainagiria eman zion Martin Ezenarro zurgin-maisuari. Martinek 16 dukat eman zizkion, eta egun hartara arte bien artean izandako tratu guztien zorrak ordainduta geratu ziren.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Ibañez Zubiaurrekoa (Domenjaren semea), Jakobo? Gesalaga eta Fernando Amilibia (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 12\]](#) agiria).

- 1549-IX-30ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Joan Olazabal harginak Katalina Urrutiari emandako ordainagiria eman zion, eraikitako

hormengatik Ana alabaren bidez Katalinak 2 dukat eman zizkiolako (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 13\]](#) agiria).

- 1549-IX-30ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Aizarnako San Joan Etxegarai agertu zen. Kantabriako Guerizo herriko Pedro Trebustroren ahalordea zuen. (Trebustro, hain zuzen, Guerizoko auzoa da). Martin Etxeberriaren ahalordea ere bazuen San Joan Etxegaraik.

Aiako Pedro Errekondok 2 kintal burdinako zorra egin zien (1 kintal = 2 dukat izanik). Pedro Errekondok zorraren zati bat Maria Joango Presalde emaztearen bidez ordaindu zuen. San Joanek 2 errealeko gastuak egin zituelako, Pedro Errekondori 13 erreal ordaintzea falta zitzaion, eta hurrengo Eguberrietan egingo zuen ordainketa.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin? Indo, Martin Intxaurregi eta Martin Andikano (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 14\]](#) agiria).

- 1549-X-1ean, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Pedro Ausoroetxea eta Joan Kortazar aurkeztu ziren. Egun hartara arte bien artean eta senideen artean izandako tratuen kontuak egin zituzten. Joanek zor osoa (urrezko 47 koroa) ordaindu zion, eta Pedrok ordainagiria eman zion.

Horrez gain, Joan Narruondok Pedro Ausoroetxeari Esteban Eztiola eskribauaren aurrean egindako 10,5 dukateko zorra Joan Kortazarrek ordaindu zion, eta Pedrok ahalordea eta eskubidea eman zizkion, zorra Joan Narruondori kobra ziezaion.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Frantzisko Artiga, Pedro Akoa eta Esteban Artiga (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 2\]](#) agiria).

1.1.14. Martin Indo, Joan Bengoetxea, Martin Sorola eta Fernando Zubeltzuren ordainagiriak

- 1549-X-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Katalina Indo (Martin Indoren emaztea) eta Bergarako Domingo Amezti elkartu ziren. Domingok Katalinari mando gaztaintzara saldu zion, eta Katalinak ordaindu egin zion.

Ordainagirian lekuko hauek izan ziren: Pedro Akoa, Martin Villarreal harakina eta Domingo Goiburu (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 13\]](#) agiria).

- 1549-X-29an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Oikiako Erkizia olagizona eta Zestoako Joan Bengoetxea elkartu ziren. Elkarren

1.23. irudia. Zestoako Indo baserria.





1.24. irudia. Itziarko Zubeltzutorre.

arteko tratuen kontuak egin zituzten, eta Oikiako Erkizia olagizonak ordainagiria eman zion Joani.

Lekuko hauek izan ziren: Zumaiako Joan Esnal eta Gartzia Agirre, eta Zestoako Joan Ezenarro (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 19\]](#) agiria).

- 1549-XI-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zarauzko Martin Sorola eta Pedro Eizagirre bildu ziren. Lehenago Zumaiako Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Zumaiako Andres Martinez Malleakoak zorra egin zien, eta egun hartan zorraren azken 12 dukatak eta exekuzio-gastuak ordaindu zizkien, Joan Gonzalez Aranburukoaren eta Martin Indoren eskutik.

Ordainagirian lekuko hauek izan ziren: Arroako Joan Zugasti eta Zestoako Frantzisko Zubeltzu eta Martin Indo gaztea (ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 1\]](#) agiria).

- 1549-XI-3an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Zestoako Fernando Zubeltzu "Ezkerra" eta Arroako Katalina Oliben alarguna azaldu ziren. Fernandok Katalinari ordainagiria eman zion, ordura arte elkarrekin izandako tratuen kontuak egin zituztelako.

Lekuko Zestoako eta Arroako hauek izan ziren: San Joan Amilibia, Joan Agote eta Martin Zuube

(ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 3\]](#) agiria).

1.1.15. Bizente Ezenarro, San Joan Etxegarai eta Martin Indoren ahalordeak

- 1549-VIII-18an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean olagizon hauek elkartu ziren: San Joan Etxegarai, Joan Areitzaga?, Martin Zuube, Esteban Edarritzaga, Iñigo Otaegi, Joan Aizpuru, Domingo Zelaia, Domingo Ezenarro, Bizente Ezenarro, Martin Azkue, Tomas Larretxe, Joan Ezenarro, Domingo Larretxe, Frantzisko Etxeberria, Pedro Olaskoaga, Pedro Etxeberria, Domingo Aranguren, Joan Azkue, Migel Azkue, Martin Kamio?, Martin Gorosarri, Domingo Erretzabal, Martin Legarda, San Joan Amas eta San Joan Egaña zestoarrak, eta Aiako Domingo Etxeberria? eta Errezilgo Errodrigo Arzallus.

Bildutako denek ahalordea eman zieten Bizente Ezenarri eta beste olagizon batzuei, Aizarnan, Aian edo beste nonbaiten elkartuta, olagizonen kofradia, bere arauekin, sor zezaten.

Kofradia Bizkaiko konderri eta jaurerrian, Lur Lauan eta Enkartazioetan zutenaren antzekoa izango zen. Eliza edo ermita ere izendatuko zuten, beren eliz-kizunak eta bilerak egiteko. Burdinolako mazola-

ri, ijezle edo tiratzaile, urtzaile eta gainerako ofizialak izango ziren kofradiako kide.

Ahalordea zutenek erregeari eta Erregekontseilukoei eskea egingo zieten arauak onets zituzten. Agirian lekuko hauek izan ziren: Martin Artzubiaga, Nikolas Lizasoeta eta Pedro Iribarrena (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 4\]](#) agiria).

- 1549-X-13an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Aizarnako San Joan Etxegarai agertu zen. Ahalordea eman zien Zestoako Joan Fernandez Olazabalgoari eta Gipuzkoako korrejimenduko Joan Eldua prokuradoreari, San Joani egindako zorrak kobratzaten. San Joan Etxegaraik Martin Etxeberria olagizonaren ahalordea zuen, eta batez ere Joan Fernandez Olazabalgoa arduratuko zen Martin Etxeberriari 3 kintal burdina kobratzeaz.

Ahalordea zutenek San Joan Etxegarai auzietan eta auzietatik kanpo ordezkatzeko zuten. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Fernandez Arreizakoa, Pedro Akoa eta Frantzisko Artiga (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 7\]](#) agiria).

- 1549-X-16an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Joan Bengoetxea aurkeztu zen. Ahalordea eman zien Zestoako Martin Indori eta

Gipuzkoako korrejimenduko prokuradore hauei: Andres Martinez Aroztegikoari, Fernando Perez Zabalegikoari eta Pedro Martinez Salzedokoari. Joan Lopez Sasiolakoaren senide Ana Bunoari? (Maria Joangoren alabari) Joan Bengoetxeari egindako zorrak kobratzen saiatuko ziren; baita beste edonork egindakoak ere.

Lekuko honako hauek izan ziren: Oikiako Domingo Goiburu (Joanen anaia), eta Zestoako Domingo Urbietta eta Gaspar Arreitza (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 10\]](#) agiria).

1.1.16. San Joan Idiakaitzen, Pedro Altzolaratsen eta Katalina Ortiz Bedua-Martzanakoaren ahalordeak

- 1549-X-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako San Joan Idiakaitz batxilerra azaldu zen. Ahalordea eman zien Iraetako Nikolas Martinez Egiakoa jaunari, Pedro Etxeberriari eta San Joanen Katalina Etxeberria emazteari, batxilerraren ondasunak kudea zituzten.

Lan guztiak Nikolas Martinezek egingo zituen, baina hau herritik kanpo baldin bazebilten edo ezina bazuen, kudeaketa-lanak Pedrok eta Katalinak (biek elkarrekin eta ez bakarka) egingo zituzten.

1.25. irudia. Aizarnako Etxeberri.



Aizarnako Etxeberrikoena edo batxilerrarena zen Antxiturbia baserria (Errezilgo partekoa) errentan eman ahal izango zuten, eta Pedro Egañari zorra ordaintzeko obligazio-agiriak eman ahal izango zizkieten.

Etxeberriko lurretan aldatu zituzten sagarrondoengatik Joan Fernandez Olazabalgoari ordainketa egingo zioten. Gainera, Aranobaso etxean eta Etxeberrin eraikuntza-lanak egiteko edonorekin kontratuak egin ahal izango zituzten.

Baserrietan ganadua erdi bana edukitzeko Joan Martinez Aritzetakoarekin edo beste edonorekin tratuak egin ahal izango zituzten. Auzietan parte hartuz, San Joan batxilerraren ordezkari izango ziren.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Lilikoa, Andres Idiakaitz (edo Lili), Grazian Arzallus eta Joan Ezenarro.

Ondoren, leku berean eta eskribau bera hantxe zela, honako hauek agertu ziren: Aizarnako Aranoko maizter Domingo Zatarain, Martin Amilibia, emazte Santxa Aranburu eta hauen seme Blas Amilibia.

Hain zuzen 1547-VIII-22an, Zestoako Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, Errezilgo Joan Martinez Arzalluskoak obligazio-agiria eman zien Martin Amilibiari, emazteari eta semeari, 1.677,5 marai ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Hil hartan, hau da, 1549ko urrian, Martin Amilibiari eta senideei zorra Domingo Zatarainek erosi zien, 1.677,5 maraiekin Domingori erosi zioten mandoaren prezioaren zati bat ordaindu zitelako. Zor haren erosketan eskribaurik ez zen izan, baina lekukoak hauek izan ziren: Nikolas Lizasoeta, Martin Egaña eta Grazian Arano.

Beraz, Domingo Zatarainek zuen zorra Joan Martinez Arzalluskoari kobratzeko eskubidea, baina egun hartan San Joan Idiakaitz batxilerrak zorra Domingo Zataraini erosi zion, eta 1.677,5 maraiak Joan Martinez Arzalluskoa errezildarrari kobratzeko eskubidea bereganatu zuen.

Agirian lekukoetako bi Joan Ezenarro eta Grazian Arzallus izan ziren (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 17\]](#) agiria).

- 1549-X-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Anton Arrona eta Ana Areitzaga emaztea agertu ziren. Ahalordea eman zioten Zestoako Pedro Altzolaratsi, apezpikuaren aurrean aurkeztuta haien testamentua eta dispensa atera zitzan.

Antonek eta Anak laugarren mailako odolkidetasuna zuten, baina bi urte inguru lehenago dispensarekin ezkondu ziren.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Urbietta, Martin Artzubiaga eta Joan Arbestain (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 18\]](#) agiria).

- 1549-XI-3an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Zestoako Katalina Ortiz Bedua-Martzanakoa azaldu zen, ama Maria Bedua ere bertan izanik. Katalina osaba Domingo Arrona zenaren oinordekoa zen, eta ahalordea eman zien Arroako Joan Zugasti osabari eta Gipuzkoako korrejimenduko Andres Martinez Aroztegikoa, Fernando Perez Zabalegikoa, Pedro Gartzia Salzedokoa eta Joan Eldua prokuradoreei.

Osaba Domingo Arrona zenaren ondasun higigarriak eta higiezinak Katalinarentzat eskuratzen saiatuko ziren ahalordea zutenek, eta auzietan ordezkari izango ziren.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Azpeitiko Domingo Areitzaga eta Jeronimo Urbietta? morroia, eta Debako Gartzia Arteaga apaiz benefiziadua (ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 2\]](#) agiria).

1.1.17. Nikolas Martinez Egiakoaren, Pedro Areiztiren eta Joan Arbestainen kontratuak

Ustez 1549?-VII-15ean, Lasako Gallari baserrian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Iraetako Tomas



1.26. irudia. Iraetako Errota.

Azkonak (Nikolas Martinez Egiakoa jaunaren morroiak) bere nagusiarentzat baserriaren jabetza hartu zuen. Etxeko ateak itxi eta zenbait adar moztu zituen horretarako.

Lekuko hauek izan ziren: Joan Garratza apaiza, Domingo Garratza anaia eta Joan Zubiaurre (Martin Zubiaurreren anaia).

Ondoren Joan Zubiaurre maizterra azaldu zen. Tomasek bere nagusi Nikolas Martinezen ahalordea zuen, eta errentan eman zion Joan Zubiaurreri Lasaoko Gallari baserria.

Joanek nagusiari urtero baserriko lurretan jasotako uzta osoaren laurdena ordainduko zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joanes Garratza apaiza, Domingo Garratza anaia eta Martin Zubiaurre.

Joan Arbestain eskribauak egun haietan, Zumaian, beste agiri bat idatzi zuen, eta bertan lekuko zumaiar hauek ziren: Joanes Areitzaga eta Domingo Irrazabal apaizak eta Joan Lopez Sasiolakoa.

Ondoren, Zumaian, Madalena Narruondoren etxean, Joan Arbestain eskribauaren aurrean, Joan Gartzia Arantzakoak eta Maria Lopez Untzetakoa emazteak, kontratu

bat onartu zuten, itzultzeko baldintzarekin. Maria Lopezek zin egin zuen agiriak zioena bete egingo zuela.

Lekuko lehentxeago aipatutako hirurak izan ziren.

Azken bi agiri hauetan Joanes Areitzaga apaiza lekuko gisa sinatuz azaltzen da, eta hau da, zalan-tzarik gabe, Joan Sebastian Elkanoren Moluketarako bigarren espedizioan parte hartu zuena (ikus [\[XVI. m. \(49-VII\) 3\]](#) agiria).

- 1549-VIII-20an, Azpeitian, Martin Perez Eizagirrekoa eskribauaren aurrean Debako Bartolome Plazaola eta Zestoako Pedro Areizti elkartu ziren. Bartolomek Azpeitiko Kontzejuari Izarritzen basoak erosi zizkion, eta han Pedro ikazkin zestoarrak 100 karga ikatz egingo zizkion Bartolomeri irailleko San Migel egunerako.

Karga ikatz bakoitzeko Bartolomek erreal bat ordainduko zion Pedrori. Egund hartan 6 dukat aurreratu zizkion Bartolomek, eta gainerakoa Pedrok 80 karga ikatz emandakoan ordainduko zion.

Pedro Areiztik kontratuko bere partea betetzen ez bazuen, kalteak eta 100 karga ikatzen prezioa halako bi ordaindu beharko zizkion Bartolome Plazaolari.

Kontratuan lekuko hauek izan ziren: Azpeitiko Atxaran batxilerra eta Pedro Eizagirre, eta Joan Olano gaztea (ikus [\[XVI. m. \(49-VIII\) 7\]](#) agiria).

- 1549-IX-10ean, Zumaian, Joan Arbestain eskribauak zenbait zumaiarren diru-kontu, tratu eta zorren berri eman zuen.

Eizagirreko Andre Mariaren ospitalean Ermua deiturako serorari 9 dukat zor zizkion Maria Otxoa Narnuondokoak, Zumaiako Odieta errebaletako baserriagatik. Zor haren 2 dukat ken 2 erreal kobratu zituen serorak.

Beste 7 dukat eta 2 erreal zor zizkion Ezuri deiturako batek etxeko errentagatik, eta Grazia Iraetak beste 40 erreal. Maria Domingez Dornutegikoa alargunak 12 dukat zor zizkion, eta Maria Martinez Otsangokoa alargunak 6 dukat.

Bestalde, Joanes Atristainek eta Joan Atristainek erdi bana zituzten behiak. Joan Atristainek behien etekinetatik 50 marai kobratu zituen bere erdiagatik, eta handik aurrera etekinak Joanesentzat izango ziren.

Horrez gain, Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Joaneke 20 dukateko zorra egin zion Joanes Atristaini. 11 dukat eta 10 erreal itzuli zizkion Joan Atristainek, eta Joanesek haien ordainagiria eman zion.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Martin Arantza eta Joanes Eguzkitza zapatariak, eta Frantzisko Arlaurreta (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 2\]](#) agiria).

1.1.18. Pedro Etxeberria preso hartzeko agindua eta Maria Joango Iraetaren behiak

- 1549-IV-20an, Bilbon, Antonio Arbolantxa eskribauaren bidez, Bizkaiko jaurerriko eta Enkartazioetako Joan Zapata de Cardenas lizentziatu eta korrejidoreak agindua bidali zien Gipuzkoako korrejidoreari eta gainerako alkate eta agintariei.

Lehenago Bizkaian korrejidore izandako Joan de Cano de Basil? jaunak bideratutako prozesua zegoen Zestoako Pedro Etxeberriaren aurka. Pedro mazolari nagusi izan zen Bilboko Boluetako burdinolan, bertako Antso Zamudio olagizonarekin kontratua eginda. Hala ere, Pedrok, bere jornalak kobratu eta lanak egin gabe, ihes egin zuen, eta Bizkaiko korrejidorearen aginduz atxilotu eta Bilboko espetxera eraman behar zuten.

- 1549-X-24an, Azkoitian, Gipuzkoako korrejidore eta lizentziatu Pedro Mercado jaunak agindua eman zien Joan Callejo merio nagusiari eta merioordei, Zestoako Pedro Etxeberria preso hartu eta Bilbora eraman zezaten. Gipuzkoako korrejimenduko Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauak idatzi zuen agindua (ikus [\[XVI. m. \(49-IV\) 1\]](#) agiria).

Ustez 1549?-IX-25ean, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Joan Ramos Elorriaga alkateak eskea egin zion Arroako San Esteban elizako bikarioari.

Zumaiako Maria Joango Iraetak alkateari jakinarazi zioenez, bi behi eta txahala Bitarteko bere sagastira sartu ziren. Sagar asko jan zuten eta aldatutako sagarondoak hautsi egin zizkioten. 6 dukateko kaltea egin omen zioten, eta behiak bahituta omen zeuzkan.

Behien jabeak ez omen zituen Zumaian aurkitu, eta Arroako San Esteban elizan jakinaraztea komeni omen zen. Ondorioz, alkateak Arroako bikarioari eskea egin zion agindua elizan jakinaraz zezan.

Egun berean alkateak Bizente Idiazabal jauna Bitarte baserrira bidali zuen, eta bertako Maria Martin eta Ana alabari agindua eman zien, bahitutako behiak ondo gorde zitzaten.

Hurrengo egunean, igandez, Arroako elizan, meza nagusian, Joan Sorazu bikarioak Zumaiako alkatearen aginduaren berri eman zuen. Gauza bera egin zuten Zumaiako San Pedro elizan bezperetan. Gainera alkateak Txomin Sasoeta Bitarte baserrira bidali zuen, Maria Martin eta Ana alabari behiak ondo gorde zitzatela esatera.

Hilaren 27an, Maria Joango Iraetak alkatearen aurrean auzitara eraman zituen Maria Martin eta Ana alaba, bahitutako behien zaintzagatik. Alkateak bere agindua Joan Arbestain eskribauaren bidez jakinarazi zien ama-alabei (ikus [\[XVI. m. \(49-IX\) 11\]](#) agiria).

1.1.19. Martin Egia olagizonaren eta Esteban Eztiolaren kontratuak

- 1549-X-27an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek bildu ziren: batetik, Martin Egia (Altzolarats jauregiko olagizona), eta, bestetik, Aiako Martin Uhegun gaztea, bere aitarekin. Bi aldeek kontratua egin zuten, igarotako San Migel egunetik hasita hiru urteko epean Martin Egiak gazteari burdinolako ofizioa (urtzaile eta ijezle edo tiratzaile gisa) irakats ziezaion.

Martin Uhegunek urtero 1.000 marai eta mantenua irabaziko zituen, eta amaieran beste dukat bat kobratuko zuen. Martin gazteak zin egin zuen kontratu hartan agindutakoa bete egingo zuela.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Fernandez Olazabalgoa, Martin Ondalde zaharra eta Pedro Iribarrera (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 15\]](#) agiria).

- 1549-X-27an, Zestoako errebaletan, Domingo Amilibia eskribauaren aurrean hauek agertu ziren: batetik Joan Arano eta Grazia Arbestain emaztea, eta, bestetik, Esteban Eztiola eskribaua eta Maria Martinez Amilibikoa emaztea.

Bi aldeek Zestoako hiribilduan, eliza zegoen kaletan, orube bana zuten elkarren ondoan. Han etxeak eraikitzeko baldintzak ezarriz kontratua egin zuten. Zestoako Kontzejuak hiribilduko orubeetarako zurari buruz egindako ordenantza bete egingo zuten. Ordenantza, hain zuzen, Joan Igartza alkateak, Domingo Garratza fiolak eta beste arduradunek egina zen.

Esteban Eztiola eta emaztea beren etxea eraikitzen ari ziren, eta horman habeak sartu zituzten. Habeak bi aldeen horman zeudenez, han eta teilaturaino markak



1.27. irudia. Arroagoiko eliza.

utziko zituzten, Joan Aranok eta emazteak ere han habeak ipin zituzten. Estebanek ipinitako armazoa eta loturak Joanek ere baliatu ahal izango zituen.

Joan Aranok Estebani zura garraiatzea kostatzen zenaren erdia ordainduko zion. Horma kalearen ertzeraino luzatuko zuten, eta ikerlariak erabakitako kostua erdi bana ordainduko zuten.

Beste zenbait baldintzaz gain, Joan Aranok eta emazteak beren orubea hipotekatu egin zuten, Estebani eta emazteari dena ordaindu arte.

Grazia Arbestainek eta Maria Martinez Amilibikoa, emakume ezkonduak zirelako, zin egin zuten kontratuan agindutakoa bete egingo zutela.

Lekuko honako zestoar hauek izan ziren: Fernando Amilibia, Pedro Arretxe apaiz lizentziatua eta Esteban Eztiola semea (ikus [\[XVI. m. \(49-X\) 16\]](#) agiria).

1.1.20. Maria Nikolas Zabala-Lasaoren eta Azpeitiko Kontzejuaren arteko auzia

- 1549-XI-7an, Azpeitiko Larreabasoaren izeneko lekuan, Azpeitiko Martin Perez Eizagirrekoa eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik, Azpeitiko Pedro Garagartza alkatea eta Frantzisko Iñiguez Altzagakoa fiela, eta, bestetik, Zestoako eta Azpeitiko auzotar Maria Nikolas Zabala-Lasao alarguna.

Bi aldeek desadostasunak zituzten Azpeitiko partean zegoen lursail eta txaradi bati bruz, hain zuzen, Beazaeta aldean eta Urruzuno aldean zeuden mugarriei buruz. Azpeitiarrek ziotenez, lokarria bi mugarren artean ipini eta Odria eta Azpeitiko herri alde-rako lurak Azpeitiko Kontzejuarenak ziren.

Maria Nikolasek, ordea, Lasaoko bere etxearentzat hartzen zuen lursail eta txaradiak beste muga batzuk zituen, eta auzia ebazteko bi arbitro epaile hauek aukeratu zituzten: Azpeitiko Martin Guardia eta Aizarnako Martin Ezenarro

Bi arbitroek Beazaeta eta Urruzunoko mugarren artean beste mugarri bat ipini zuten, eta horrela bereizi zituzten bi aldeen lurak.

Lekuko honako hauek izan ziren: Azpeitiko Asentzio Eizagirre, Andres Areitzaga eta Joan Zabala, eta Aizarnako Joan Igartza (ikus [\[XVI. m. \(49-XI\) 5\]](#) agiria).

1.1.21. Esteban Akertza zenaren eta Maria Akertzaren ondasunak

Esteban Akertza zenaren alaba Maria Akertzak Beltran Oñatz-Loiola zuen tutore, eta honek ahalordea San Joan Eizagirre azpeitiarrari eman zion, Sevillan Estebaneren ondasunak Mariarentzat eskura zitzaizkien (ikus *XIV ZESTOA MENDETAN ZEHAR (1548)* liburuko [\[XVI. m. \(48-II\) 8\]](#) agiria)

Sevillan, Domingo Lizarrarats bankariak 1549-I-2an hasitako kontu-liburuan, otsailaren 19an idazpena idatzi zuten. Bertan Maria Akertza adingabearen eta Beltran Oñatz-Loiola tutorearen izenean zebilen San Joan Eizagirre azpeitiarraren idazpena dago. Bertan dioenez, San Joan Eizagirrek Rodrigo Jerezengatik 45.000 marai zor zituen. Hondurastik Beltran jaunarentzat 2.000 dukat ekartzeko egindako ehuneko seiko aseguruagatik zen.

- 1549-IV-6an, bestalde San Joan Eizagirrek Sevillan Maria Otxoa Akertzakoaren Pedro Akoa ordezkari



1.28. irudia. Azpeitiko Kontzeju-etxea.

riarekin tratua egin zuen, Esteban Akertza zenaren eta Maria Otxoaren senar Frantzisko Olazabal zenaren arteko kontuak garbitzeko. Sevillako Joan Portes eskribauak idatzi zuen agiria, lekuko bertako Joan Santamaria eta Diego Portes eskribauak izanik (ikus [XVI. m. (49-I) 1] agiria).

1.1.22. Gipuzkoako Batzarrak, etab.

1549. urtean lehenbizi Batzar Berezia bildu zen Azkoitiko Basarten, otsailaren 6an.² Geroago, maiatzaren 14tik 24ra bitartean Batzar Nagusiak Bergaran izan ziren. Zestoatik prokuradore Pedro Altzolarats joan zen. Bertan Gipuzkoako armen esportazioa, Donostiako Santa Katalina zubian ordaintzen zen zerga eta beste zenbait gai aztertu zuten.³

Batzar haietan Probintziak egindako gastua 153.584 maraikoa zela azaldu zen. 2.210 sukaldek ordaindu behar zuten kopuru hura, hau da, sukalde bakoitzak 69,5 marai. 125 sukalde zeuden salbuetsita.⁴

1549ko azaroaren 14tik 24ra bitartean Mutrikun ospatu ziren berriz Probintziaren Batzar Nagusiak. Zestoatik prokuradore Joan Ibañez Zubiaurrekoa izan zen, eta bertan hainbat gai eztabaidatu zuten: Atxa-

gako jaunek Orioko kanalean kobratzen zuten zerga, Aldundia sortzeko proposamena, etab.⁵

Batzar haietan Probintziaren gastua 108.909 maraikoa izan zen. 58 marai ordaindu beharko zituen sukalde bakoitzak, eta guztira ordaintzekoak 1.877 ziren. 458 sukalde salbuetsita zeuden eta ez zuten ordainduko.⁴

Bestalde, Zestoako hiribilduak, Joan Erentxun Onzalo historialari zestoarraren arabera eta geroago agertuko diren agirien arabera, su hartu zuen urte hartan.⁶ Elizak ere su hartu zuen. Sutean erretaula bi eder erre ziren, bere garaian Flandestik ekarriak. Zilar landuzko piezak ere erre ziren. Liliko kapera, ordea, ez zen erre. Gero eliza handiagoa egin zuten, Liliko eta Iraetako etxeen lurrak hartuta.⁷ (1549. urteko [XVI. m. (49-X) 8] agirian Martin Artzubiagari Zestoako errebaletan lehentxeago etxea erre egin zitzaiola adierazten da. 1550. urteko agirietan Zestoako hiribildua erre egin zela dioten eta hemen erakutsiko ditugun aipamenak nahiko ugari dira, eta aipamen horietatik ondoriozta daitekeen, hiribildua eta eliza 1549an erre ziren).

Urte hartan euskararen zenbait testigantza ere jaso zuten agirietan, eta horietako bat Nafarroako Gares in-

1.29. irudia. Bergarako udaletxea.



guruko Utergako Joana Utergak eta ondoko Adiotz herriko Martin Azteirainek izandako auzia izan zen, Joanak zioenez Martinek ezkontzeko eskea egin ziolako, euskaraz egin ere.⁸

Euskarazko beste testigantza bat Erroman zebilen Joan Irañeta nafarrak Saldiasko Pedro Iterori 1549-I-8an bidalitako gutunekoa da. Delako gutunean tartean euskarazko zati hau sartu baitzuen: “... *eta Jaincoac*

parcaderozola Migueli, cerren ni emen nayazala eçuen scribatu bear berceri.”⁹

1549. urtean, munduan zehar zebilen beste nafar euskaldun bat San Frantzisko Xabierkoa zen. Asian zebilen Portugalgo erregeak herrialde haietako jendea kristautzera bidalita. Dena den, Xabierkoa kexu zen eta urte hartan gutuna bidali zion erregeari kristautasuna zabaltzeko behar adinako laguntzarik ematen ez ziolako.¹⁰

1.2. LEHEN KAPITULUKO OHARRAK

¹ Esteban Akertza merkatari zestoar zenak baimena zuen Indietara esklaboak bidaliz negozioak egiteko, Asentzio Altzola kapitainaren testamentuan ageri denez. Ikus AZPIAZU, J. A. Esclavos y traficantes. Historias ocultas del País Vasco. Tartalo argit. Donostia, 1997. (52. or.).

² ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. XX. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (257, 258. or.).

³ XX. Registro de la Junta General celebrada en la villa de Vergara en el mes de mayo de 1549. Tolosako Artxibo Orokorra. JD AM 4,5. (1-9. or.).

⁴ LARRAÑAGA ZULUETA, M. *Aproximación al estudio económico de Gipuzkoa a través de las fogueraciones de Juntas*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. XX. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (285. or.).

⁵ XX. Registro de la Junta General celebrada en la villa de Motrico en el mes de noviembre de 1549. Tolosako Artxibo Orokorra. JD AM 4,6. (1-47. or.).

⁶ ERENTXUN ONZALO, J. Apuntes históricos de la villa de Santa Cruz de Cestona. Zarautz, 1948. Itxaropena argit. (6. or.).

⁷ ERENTXUN ONZALO, J. Cestona. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia, 1970. (65, 66. or.).

⁸ SALES TIRAPU, J. L. eta URSUA IRIGOIEN, I. Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona. Sección Procesos. Tomo III. 1598-1611. 1507 Uterga. 1549. Iruñea, 1988. (361. or.).

⁹ ONAINDIA, S. Euskal Literatura I. XVI, XVII ta XVIII mendeak. Etor argit. Bilbo, 1973. (15. or.)

¹⁰ XX. Okendotarrak. Donostiako leinu bat. Donostiako Udala. Donostia, 2005. (34. or.).

